



"Gure dirua
itzultzea
eskatzen
dugu"

Isidro Sanchez |

Ekarpenengatik kaltetutakoa | 7



Zerga gehienak
izoztuta
Eskoriatzan

Hondakinena eta
ibilgailuena dira
salbuespenak | 17

Xabi Abasolo motorzalea Espainiako
Txapelketan, aste bukaeran | 21



Lan eta formazio informazioa
emango du ALEk | 16



Bergararak jarriko ditu dantzan
Kantarik domeka honetan | 26

Batu dute
aurtengo
mahatsa eta
sagarra

Udazkeneko azken
beroek produktua
hobetu dute | 3

"2015erako
autobus
zerbitzu berriak
martxan
jarri nahi
ditugu"



Larraitz Ugarte | Azpiegitura eta
Mugikortasun diputatua | 6



IMANOL SORIANO

Aloñiak eta
Bergarak
derbia jokatu
dute domekan

Elkarren artean bi
puntuko aldea
besterik ez dute | 21

Naturzaliak
sortu dute
Oñatin, natura
ezagutzeko | 10

Mondragonek aho batez ukatu die dirulaguntza Etxetresnei

Fagor Etxetresnek aurkeztutako proposamena
bideragarria ez dela esan du Kontseilu Orokorrak | 3



JAGOBA DOMINGO



Hileta
errituak
eta
ohiturak

Domu Santua dela
eta, bisita gidatuak
Angiozarren | 24

Zatoz DOAN Carrefour-era!

DOAN

Autobideko bidesaria

Joan-etorria

Autobidea:

Carrefour Gorbeira etortzeko

AP-1 (Eibar - Etxabarri Ibiña)

- Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



60 € baino gehiagoko erosketetarako. Zure Club Carrefour txartela aurkeztuta edo PASS txartelarekin ordainduta.

Carrefour
GORBEIA

carrefour.es



GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Mondragon: "Bideragarritasun Plana ez da bideragarria"

- ▶ "Korporazioko gainerako kooperatibei ez die eragiten Etxetresnen egoerak"
- ▶ "Mondragoni atxikitako kooperatibek asmatuko dute egoera zail hau gainditzen"

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Mondragon Taldeak ez du diru gehiagorik emango Fagor Etxetresna Elektrikoen berregiturazeari laguntzeko. Atzo, eguaztena, goizean goizetik komunikabideetan bolo-bolo zebilen albistea konfirmatu egin zuen iluntzean Mondragon Taldeak, komunikatu bitartez. "Korporazioaren Kontseilu Orokorrak ez du bideragarri ikusten Fagor Etxetresna Elektrikoen aurkeztutako proposamena eta, aho batez, haren iritzia da proiektua ez dela behar bezala egokitzen merkatuak dituen beharretara, eta eskatzen dituen baliabide finantzarioek ez luketela enpresaren etorkizuna bermatuko", adierazi zuten. Eta azalpena ere eman zuten esanez, "azken urteotan laguntzak bideratu eta gero gertatu den egoera aztertu" eta "aho batez ondorioztatu" duela Fagor Etxetresnen "bideragarritasun plana ez dela bideragarria". Horren harira, jakinarazi du Korporazioak 300 milioi euro bideratu dituela "Fagor Etxetresnetara kooperatiben arteko elkar-tasun babesaren kontzeptuan".

Gainerakoengan eraginik ez

Edozelan ere, Fagor Etxetresnak ez dituela finantzatzeko jakinarazteaz bat, Mondragon Taldeak azpimarratu du Fagor Etxetresnen egoerak ez diela "Korporazioko gainerako kooperatibei eragiten, ez delako enpresa holding bat, erakunde independente eta autonomoen elkarrekin bat baizik".

Langileen birkokapenak

Horrekin guztiarekin batera, Mondragon Taldeak berretsi egin du "Korporazioak beharrezko elkar-tasun mekanismo guztiak" abiaraziko dituela "enpleguan sortutako eragina ahalik eta gehien murrizteko". Eta ildo horretan erreferentzia egiten dio Enplegu Bulego Korporazioari, esanez langileen "birkokapenak zein aurretiko erretiroak" erabiliko dituztela, baita "prestakuntza programak abiarazi" ere, "Fagor Etxetresnetako bazkideen enplegarritasuna errazteko".

Era berean, eta taldeko gaintzeko kooperatibei dagokienez, haien balioa indarrean dagoela nabarmendu du Mondragon Taldeko Kontseilu Orokorrak, esanez taldeko kooperatibak "askotariko sektore eta merkatuetan" daudela presente: "Eta hori bermea da epe ertain edo luzearako etorkizun-



Fagor Etxetresna Elektrikoen Garagartzako lantegia. | JAGOBA DOMINGO

nean jarduera berriak sortzen eta, ondorioz, enplegua sortzen jarraituko dutela pentsatzeko". Eta dio lehiakortasun hori "albis-

te ona" dela "Fagor Etxetresnetan soberan geratu den enpleguari irtenbidea emateko".

Halaber, konpromisoa eraku-

tsi du "epe laburrera lan proposamen bat osatzeko (...) ohiko bideetatik zein bide berezietatik, negozio berrien sustapenari lotu-

tako eragile guztiak aktibatzeke", eta dio "hurrengo Kongresuan" emango duela horren berri.

Bestalde, Fagor Etxetresnei "lankidetzak" eskaini die "iraun dezaketean negozio unitateetan ahalik eta enplegu kopururik handiena babesten saiatzeko".

Gainerakoengan eraginik ez

Bukatzeko, berretsi egin ditu apustua eta globalizazioaren testuinguruan "kooperatibismoaren berezko balioak".

"Sosegu" mezua zabaltzarekin batera, mezu positiboak aukeratu dute komunikazioa bukatzeko, esanez "Mondragoni atxikitako kooperatibek asmatuko" dutela "egoera zail hau gainditzen, enpresetan merkatuetara egokitzeko erabakiak hartuz eta elkartasunerako dituzten mekanismo eta tresna guzti-guztiak erabiliz". Eta "herrialdearen aldeko konpromisoa" ere erakutsi gura izan du, esanez "enpresa sare eraldatzeko apustuaren" alde egingo dutela, "balio erantsi handiagoko enpleguak sortzeko".

Hatzekodunen lehiaketa

Horren sosegu ez daudenak Fagor Etxetresna Elektrikoetako eta Edesako Kontseilu Errektorea eta Kontseilu Soziala dira. Euren ezinegona azpimarratzen dute, esanez Fagor Etxetresnen bideragarritasun plana aurrera eramateko finantzazioa ez lortzeko "enpresa hartzekodunen lehiaketa berehalakoan aurkeztera derri-gortzen" duela "ezinbestean".

Diote hori gauzatzeak "enplegu galera" nabarmena ekarriko duela, Fagorrekin lotura zuzena dutenena zein zeharkakoena ("4.000 lanpostutik gora Euskal Herriari bakarrik"). Are gehiago, diote "inguruko enpresa eta kooperatiba batzuetan ere bizi iraupena kolokan jartzearainokoa" izan daitekeela kaltea, eta, besteak beste, "merkatuan 50 urtetik gorako presentzia eta lidergo duen marka ezagun eta prestigiotsu baten merkataritza-fondoa galtzea".

(behean osorik).

Kale-agerraldia

Eta "enplegua defendatzearen" alde manifestazioan irtengo dira gaur, eguena, 18:00etan. Deialdia "Fagor Etxetresna Elektrikoetako eta Edesako langile guztiak" egin diete, baina gonbidatu dituzte euren arazoak "eragiten dielako edo elkartasuna adierazi nahi >

Mondragoneko Kontseilu Orokorraren aho bateko akordioa

Korporazioaren Kontseilu Orokorrak ez du bideragarri ikusten Fagor Etxetresna Elektrikoen aurkeztutako proposamena eta, aho batez, bere iritzia da proiektua ez dela behar bezala egokitzen merkatuak dituen beharretara, eta eskatzen dituen baliabide finantzarioek ez luketela enpresaren etorkizuna bermatuko.

Korporazioak bere kooperatibek beraiek eta bere finantza tresna korporatiboen bitartez Fagor Etxetresnei azken urteotan laguntzak bideratu eta gero gertatu den egoera aztertu du, eta aho batez ondorioztatu du Fagor Etxetresna Elektrikoen bideragarritasun plana ez dela bideragarria.

Merkatua. Funtsezko alderdi bat dago, Fagor

Etxetresnek merkatu globalean lehiatzeko duen ahalmenarekin zerikusia duena, lehiakide berriak eta joko arau berriak dituen sektore batean gertatzen ari diren aldaketa guztietara egokitzeari dagokionez. Eta hori berdin gertatzen da enpresa ororentzat, daukan izaera juridikoa edozein dela ere.

Korporazioa. Elkarrekiko independenteak diren kooperatiba autonomoen elkarrekin bat da hainbat elkartasun mekanismo hornituta. Korporazioak bere kooperatiba guztien interesak defenditzen ditu, baina negozioen kudeaketaren erantzukizuna, ordea, horietako bakoitzaren gain dago.

Horrenbestez, Fagor Etxetresnen egoerak ez die Korporazioko gainerako

kooperatibei eragiten, ez delako enpresa holding bat, erakunde independente eta autonomoen elkarrekin bat baizik.

Babes solidarioa. Azken urteetan, Korporazioak 300 milioi euro bideratu ditu Fagor Etxetresnetara kooperatiben arteko elkartasun babesaren kontzeptuan, tresna korporatiboen bitartez, gainerako kooperatiben laguntzen bitartez eta, azkenik, Fagor Taldean bertan kokatutako kooperatiben babes solidario hurbilagoaren bitartez.

"Proiektua ez da egokitzen merkatuaren beharretara"

Mondragon Taldearen Kontseilu Orokorren konpromisoak

Korporazioak beharrezko elkartasun mekanismo guztiak abiaraziko ditu Fagor Etxetresnen egoeratik enpleguan sortutako eragina ahalik eta gehien murrizteko. Horretarako, birkokapenak zein aurretiko erretiroak erabiliz, eta prestakuntza programak abiaraziz Fagor Etxetresnetako bazkideen enplegarritasuna errazteko. Ekintza horiek guztiak Enplegu Bulego Korporatibotik koordinatuko dira —dagoeneko koordinatzen ari dira—, eta bertan parte hartzen dute Fagor Etxetresnetako Pertsonal sailak, Lagun-aro, EPSVk eta Korporazioko Gestio Sozialeko sailak.

– Iraganak abalatzten du Korporazioak enplegua sortzeari dagokionez egindako bidea, eta bertan integratutako dibisio guztiek gaur egun ere ildo horretan jarraitzen dute. Gure kooperatibak askotariko sektore eta merkatuetan daude presente, eta hori bermea da epe ertain edo luzerako etorkizunean jarduera berriak sortzen eta, ondorioz, enplegua sortzen jarraituko dutela jantzeko. Gure negozioak beren merkatuetan lehiakorak izatea berez albiste ona da Fagor Etxetresnetan soberan geratu den enpleguari irtenbidea emateko.

– Jarduera sustatzailea areagotuko du. Kontseilu Orokorrek dagoeneko epe laburrera lan proposamen bat osatzeko konpromisoa dauka, ohiko bideetatik zein bide berezietatik, negozio berrien sustapenari lotutako eragile korporatibo guztiak aktibatuko.

– Konpromisoa hartzen du hurrengo Kongresuan jarduera horiek guztiak finantzatu ahal izateko ekimenak aurkezteko.

– Datozen hilabeteetan Fagor Etxetresnei lankidetzak eskainiko dio iraun dezaketen negozio unitateetan ahalik eta enplegu kopururik handiena babesten saiatzeko.

Epe laburrean lan proposamen bat osatzeko konpromisoa dauka Mondragon Taldeak

> dutelako" eurekin "bat etorri nahi duten herritar guztiei".

18:00etan irtengo da protesta Fagor Etxetresnek San Andres auzoan duten egoitzatik, eta, oraingo honetan, Arrasaten sartu eta "herriko kaleak ibili ondoren plaza nagusian" bukatuko dute manifestazioa.

LAB, manifestazioarekin bat

Hain justu, gaurko manifestazio horrekin bat egiteko dei egin du LAB sindikatuak. Atzo iluntzean bidalitako prentsa ohar baten bitartez egin du eskaera hori. Eta eskatu gura du, baita ere, "Fagor Etxetresnen itxiera ofiziala baieztatu aurretik", erakunde eta finantza entitateak "benetan inplika daitezela gal daitezkeen 4.000 lanpostuak salbatzeko".

Aldi baterakoekiko kezka

Gauzak horrela, atzera ere ezinezona areagotu egin da Debagoien inguru honetan. Eta ez bakarrik langile bazkideen artean; baita aldi baterako langileen artean ere.

Horren harira, ELA sindikatuak jakinarazi du "kezkatuta" dagoela Mondragon Korporazioko enpresetan bazkide ez diren langileen egoerarekin: "Sindikatu beldur da ez ote dieten oraingoan ere krisia ordainaraziko (talde kooperatiboan ohikoa izan den moduan). Ez gatoz bat zenbaitek lasai hartu duten jarrerarekin, hots, bazkide kooperatibista ez diren kaleratzea onartzen dutenekin", adierazi du prentsa ohar bidez. Langile guztien alde egiteko eskatu dio Eusko Jaur-laritzari.

Diotenez, urriaren 16an Fagor Etxetresnek aurre-konkurtsoa iragarri zutenetik, ELA "arreta bereziz" ari da jarraitzen enpresa horri buruzko informazioa: "Egoera oso larria da hau, Euskal Herriko enpleguan eta sare industrialean eragin handia duena, baina, gainera, sindikatu honek gogorarazi nahi du gai honetan baduela parte izateko arrazoirik; izan ere, bat-batean lanik gabe geratu den jende askoren ordezkari da; esaterako, Edesako langileena nahiz beste enpresa batzuetako beharginena, zeintzuei egoerak nolabait eragiten baitie".

Ekarpenekin, kezka

Eta lehenagotik ere ezinezogean zeudenak dira, zela ez, Fagorren borondatezko ekarpenak eta kapital soziala sartuta dutenak. Horien bueltan komisioa sortu dute, Ordaindu, Fagorreko 200 bazkide inguruk sortu ere.

Hain zuzen ere, Fagorren dituzten kapital sozialak eta borondatezko kapitalak eskatzeko sortu dute komisio hori; izan ere, diote duela urtebetetik hona ez dietela dirua itzultzen. Prentsaurrekoa eman dute asteon eta adierazi dute ordutik "engainatuta" sentitu direla, eta gaineratu dute "ez dutela inolako informaziorik jaso". Salatu dute bazkideei dagoeneko kobratuta izan beharko lituzketen era askotako ekarpenak zor zaizkiela, aktiboei zein ez aktiboei.

Hala, arazo horrengatik kalte-tuta dauden pertsonendako hitzordua egin dute gaur, eguena. Abokatuak jarririko dituzte Arrasateko Kulturategi Loramendi bulegoan



Ahaldun nagusia alkateekin batzartu zen berriz atzo, eguaztena. | IMANOL GALLEGU

arazo horrengatik kaltetuta dauden pertsonendako. Hauek dira fotokopietan eraman behar diren dokumentuak: daukaten produktua baieztatzen duen papera, nortasun agiria eta euren egoeraren laburpen txiki bat. Abokatuak egongo dira 09:30etik 13:00ak arte, eta baita arratsaldean ere, horrela behar izanez gero. Ondoren, dokumentazio guztia Fagorren aurkeztea da asmoa. (Ordainduren gaineko xehetasun guztiak dituzue zazpigarren orrian, elkarriketa nagusian).

Enplegu Bulegoa

Eta, bien bitartean, hortxe dago Mondragon Taldeak iragarritako Enplegu Bulego Korporatiboa, kalean geratu diren bazkideen birkokapenaz arduratuko dena. Dagoeneko lanean hasita dira, ohar bidez Mondragon Taldeak jakinarazitakoaren arabera; eta ohar horretan bertan iragarri dute azaroan birkokatze gehiago egingo dituztela.

Gaur, eguena, dira elkartzeokoak eta bulegoaren funtzionamenduari gaineko informazioa ematekoak. Baina aurreratu dutena da Enplegu Bulego Korporatiboko ordezkariak kooperatibaz kooperatiba pasatuko direla datozen egunotan, ikusteko ze behar dituzten kooperatiba horietan, eta batez ere ze

postu betetzen dituzten kooperatibetako aldi baterako langileek. Eta batoren behararen arabera eta bestearen eskaintzaren arabera joango dira kalean geratu diren Fagor Etxetresnetako bazkideak birkokatzen.

Modu horretan lan egingo dutela aurreratu dute Enplegu Bulego Korporatibotik. Zehaztu dute Mondragon Taldeko pertsonal sailerako langileek jardungo dutela zeregin horretan datozen egun, aste eta hilabeteotan, euren bestelako zereginak baztertuta.

Diputazioaren kezka

Bestalde, Debagoieneko alkateek atzo, eguaztena, bigarren batzarra egin zuten Martin Garitano diputatu nagusiarekin batera. Lehenengo bileran esandako moduan, aztertu eta jakin gura dute herri bakoitzean ze inplakto eragingo duen Fagor Etxetresnen egoerak, ahaztu barik hemengo enpresa ertain eta txikiak, familiak eta bestelako kaltetuak.

Garitanok batzarraren ostean kezka erakutsi zuen azken orduan zabalitzen zebiltzan notizia edo informazioengatik, eta adierazi zuen orain "arduraz jokatzeko" beharra dagoela. "Azken finean, jokoan dagoena oso larria da eta uste dut ez dela garaia pilota bata

bestearen teiltuan jartzeko, baizik eta denok elkarnean euskaldunok horrenbeste maite dugun auzolanean egoera larri honi aurre egiteko garaia da. Norberak bere eskuduntzak ditu eta eskuduntza horiek guztiak martxan jarri behar ditugu", esan zuen.

"Sentikorrek gara"

Eusko Jaur-laritzak Mondragonen erabakiaren gaineko oharra bidali du. Gogorarazi du Fagor Etxetresnekin konprometitzeko borondatea agertu duela, "betiere, egiteko moduko bideragarritasun plan bat bazegoen eta Mondragon Korporazio osoak bideragarritasun plan hori onartu eta berau martxan jartzeko finantzazioarekin konprometitzen bazen". Mondragonen erabakia jakin eta gero, Eusko Jaur-laritzak "bazkide eta langileen atsekabea ulertzen du eta enpleguan eta ekonomian egoera honek izan ditzakeen ondorio txarretaz konturatzen da. Sentikorrek gara Fagorretik bizi diren familien kezka-karekiko, Euskadin lanpostua galdu duten milaka familiekin sentikorrek garen bezala". Oharra bukatzen du Mondragon Korporazioarekin eta Etxetresnekin lan egiteko gertu dagoela, "egoera honen eragin soziala eta ekonomikoa ahalik eta txikiena izan dadin".

Fagor Etxetresna Elektriokoak – Edesako Kontseilu Errektorearen eta Kontseilu Sozialaren jakinarazpena

Kontseilu Errektoreak -governu kooperatiboko organoak- eta Kontseilu Sozialak -kooperatiboko bazkideen ordezkariak sozialeko organoak- honakoa adierazten dute:

1. Fagor Etxetresna Elektriokoak-ek enpresaren berregituraketa eta jarduera errentagarriak, lanpostuen parte esanguratsuekin batera, mantentzea ahalbidetuko lukeen bideragarritasun plana garatu du. Plan hau aurrera eramateko Mondragon Korporaziora eta erakunde autonomiko eta estataleki eskatu zaie finantzazioa.
2. Aurreikusten den finantzazio gabeziak enpresa hartzekodunen lehiaketa berehalakoan aurkeztera derrigortzen du ezinbestean, honako ondorioekin:
 - a. Enplegu galera, hornitzaile, kontrata, komertzioen eta abarren enpleguei ere eraginez (4.000 lanpostutik gora Euskal Herrian bakarrik).
 - b. Inpaktua bazkideen aurrezkitan (borondatezko ekarpenak eta bazkide ez-aktiboek eta laguntzaileen maileguak).
 - c. Inguruneko enpresa eta kooperatiba batzuetan ere biziraupena kolokan jartzearainokoa izan daiteke kaltea.
 - d. Eskualdeko aberastasun ekonomiko eta sozialari egiten zaion ekarpena galtzea.
 - e. Merkatuan 50 urtetik gorako presentzia eta lidergoa duen marka ezagun eta prestigiotsu baten merkataritza-fondoa galtzea.
3. Fagor Etxetresna Elektriokoak-ek adierazi nahi du uste osoa duela hartzekodunen lehiaketan sartzeak enpresaren jardura eta lanpostu guztiak betirako galtzea ekarriko lukeela.
4. Bestalde, sistema kooperatiboaren oinarri diren elkartasun balioei eutsiz, konfiantza du enplegu guztiak mantenduko direla, birkokapenen zein jardura berrien sorreraren bidez, eta baita aurre-erretiro eta alde aurretiko erretiro duinak lortuko direla egoera horretan leudekeen bazkideentzat.

"4.000 lanpostutik gora eragiten die Euskal Herrian"

Jatetxe Gida



AGORROSIN

OSTALARITZA



Boni Laskurain 21
BERGARA
943 77 70 30

- Eguneko menua asteleheneretik ostiralera 9 €.
- Asteburuko menua 15 €.
- Bazkariak eta afariak, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan. (Jaiagunetan ere bai).
- Plater konbinatuak: ostiral gauetan > **2 Eskatu, 1 Ordaindu.**
- Gosariak, ogitartekoak, pintxoak.
- Bazkari eta afariak terrazan emateko aukera.



Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE
943 71 02 28 / 647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak.
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela.
- Aparkalekua eta terraza.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.**



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzal-diarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San
Andres auzoa - ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

Larraitz Ugarte | Azpiegitura eta Mugikortasun diputatua

"Asmoa da 2015erako autobus zerbitzu berriak martxan jartzea"

Herriz herri batzarrak egin ditu Diputazioak garraio publikoaren gainean

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Garraio publikoaren erabilera areagotu eta zerbitzua hobetzeko bilera irekiak egin dituzte Aldundiak eta udalek herritarrekin. 2014an Gipuzkoako autobus emakidak berritu aurretik, zerbitzua- ren inguruan eztabaidatu gura dute herritarrekin haien iritziak jasotzeko. Bilera irekiak Debagoieneko herri guztietan egin dituzte. Xehetasunak eman ditu Larraitz Ugartek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegitura eta Mugikortasun diputatua.

Bukatu dira herritarrekin batzarrak. Zelako erantzuna izan dute?

Oso ondo joaten ari da prozesua. Lehen fasean gaude, baina parte-hartzea oso handia dabil izaten. Ia 400.000 biztanleri eragiten dion zerbitzua da. Zuzeneko batzarretan, eta baita Interneten ere. Egin dira, baita ere, *Autobus Egunak*. Guk kontratatutako enpresa batzuetakoak joan dira erabiltzaileei zuzenean galdetzen, eta hor ere galde-tegi dezente bete dira. Jendeari eragiten dion gai bat da; jendeak ikusten du bere egunerokoa garraio zerbitzua hobetzeak eragina duela eta hori da parte-hartze prozesuak arrakasta izatearen gakoetako bat.

Zeintzuk dira herritarrek helarazitako eskaera nagusiak?

Jendeak beti kontsideratzen du garraio publikoa defizitarioa dela, gura duelako garraio publikoa bere beharretara egokitzea: *Nire etxe aurretik nik joan behar dudan lekuko ate aurreraino nahi dut garraio zerbitzua, eta, gainera, ordu laurdenean behin*. Zentzu horretan gara ase ezinak, eta administrazioak normalean ezin ditu behar horiek ase. Debagoienean, tradizionalki garraio publikoaren erabilera oso txikia izan da. Egia da azken urteotan dezente inbertitu dela; eskualde mailako mugikortasuna (gehien egiten dena) asko hobetu da, baina oraindik hiriburuekin konexioak hobetzeko daude, justizia jauregia Bergaran, ospitalea... badaude zerbitzu batzuk dezente hobetu behar direnak, eta herri txikienekin eskaripeko zerbitzuak bideratu (taxi-bus zerbitzuak)... ikusi egin behar da nola artikulatzen diren herri horiek. Bestalde, hartu-eman honek ematen digu aukera jendeak ikusteko ze kostu daukan garraio publikoak. Aldunditik oso garbi dugu garraio publikoan inbertitu egin behar dela. Orain Gipuzkoan 30 milioi euro inbertitzen ditugu urtero garraio publikoan, eta zenbat eta erabiltzaile gehiago izan, orduan eta aukera handiagoa dugu zerbitzu hobea emateko. Beraz, oso inportantea da erabiltzaileak ulertzea ze suposatzen duen Aldundiarendako edo beste edozeinendako garraio zerbitzuak, ze inpor-



Larraitz Ugarte. | UBANE MADERA

"Jendeak ikusten du garraio zerbitzua hobetzeak eragina duela egunerokoa"

"Ikusi behar da nola egin herritarrek garraio publikoa erakargarri ikusteko"

tantea den garraio hori erabiltzea, eta baita hori lortzeko kontzientziazio lana egitea ere. Debagoienean, esandakoa: autoaren erabilera oso-oso handia da, eta oso kolektibo bereziak dira eguneroko autobusa erabiltzen dutenak. Gainera, kontuan izan behar da trenik ere ez dugula eta nahiko isolatuta bizi izan garela urteotan eta urtetako ohiturak aldatu beharra dagoela; baina, era berean, garraio publikoa erabilpen aldetik asko hobetu behar dugu.

Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetako erakundeekin elkarlanean badiharduzueloturak-eta bestelakoak egin ahal izateko?

Emakidei dagokienez, oso delimitatuta dago nori zer dagokion. Adibidez, Arrasate-Bilbo ibilbidea guk eramanen dugu, baina beste ibilbide batzuk Bizkaiak edo Arabak eramanen ditu, eta hori oso estankoa den arlo bat da. Hitzarmenak ditugu eta konpentsazio batzuk egiten ditugu Bizkaiko zerbitzu batzuk Gipuzkoaraino iristen direnean eta alderantziz, baina nahiko estankoa da.

Autobus lantzaderak jartzeko aukera aztertzen zabilzate, ezta?

Bi gauza daude hor: zerbitzua jarri eta zerbitzuaz informatu. Oñatin, adibidez, orain gutxi jarri zen lantzadera Elorregirekin konektatzen

zuena, eta uste dut zerbitzu ona dela. Baina informazio aldetik askori ez zaio iritsi, eta askok ez du jakin martxan dagoenik. Jarri egin daitezke, modu pilotuan aztertu, eta horrekin batera informatu, eta ikusi behar da nola egin herritarrek zerbitzu hori modu erakargarrian ikusteko, eta pentsa dezaten: *merezi dit autobusa hartzea, eta ez neure autoa*.

Zein da hemendik aurrera landuko duzuen prozesua?

Emakida iraungita dago, berritu egin behar da, eta ikusiko da ze enpresa aurkezten diren. Lehen erronda egin dugu parte-hartze prozesuan; orain landuko duguna da aurre-proiektu bat, hor batuko dira herritarren beharrak-eta, martxoan herritarrei esango diegu zein den aurre-proiektua eta zer hobe daitekeen eta zer ez. Eta gero landuko genuke proiektua. Ekainean joango gara berriro herri guztietara proiektua aurkeztera eta hori da lizitazioa aterako dena eta enpresa batek hartuko duena abenduan. Asmoa da 2015eko urtarrilean autobus zerbitzu berri guztiak martxan jartzea.

Hipoteketan aplikatzen den indizea dela-eta, kontuz ibiltzeko deia

Kaleratzeak Stop Debagoiena elkarteak kanpaina berezia abiaraziko du egunotan

U.M. | DEBAGOIENA

Bi ertz izango ditu Debagoieneko Stop Kaleratzeak elkartearen kanpainak: inplikatu informazioa ematea eta hipoteketara aplikatzen zaien "indize arbitrarioen kontra borrokatzea". Datozen egunotan abiaraziko dute kanpaina, baina iragarri gura dute informazioa edo aholkua behar duen edozeinendako ateak zabalik dituztela. 688 82 31 54 telefono zenbakia edo *stopdebagoiena@gmail.com* helbide elektronikoa dira horretarako bideak.

Euriborra + 1 indizearen alde

Hain justu ere, Salva Gonzalezek, Debagoieneko elkartearen ordezkariek, kontatutakoaren arabera, herritar asko dabil azkenaldian euren gaitasun jotzen. Hain zuzen, IRPH indizearen desagertzea eta haren ordezkoa dela-eta datoz orain kezka.

Labur esanda, IRPH indizea ofizialki azaroaren 1ean desagertuko da. Eta horren lekuan ordezkoak aplikatzen hasi behar-ko liriteke. Baina badago zirikitu bat, zeinek IRPH bera edo haren pareko indizeak aplikatzeko atea zabalik uzten duen,

banketxe edo kutxen bezeroek kontra egin ezean, eta askotan, bezeroen ezjakintasunak kontra egiteko aukera ezerezean uzten du. Adibide bat jartzearen, dirutan, horrek dakar hilero familia batek 300-400 euro gutxiago ordaindu ahal izango zukeela 700 euroko hipoteka oinarri hartuta, Euriborra + 1 indizea aplikatuz gero.

Horren harira, Kaleratzeak Stop Debagoienak iragarri du azken indize hori (Euriborra + 1) aplikatzearen alde borrokatuko dela.



Salva Gonzalez. | U.M.



Begarako Udala

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomi jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
4. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituenak.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituenak.
8. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituenak.

Erabakia Udaltzatza Osoak 2013ko urriaren 28ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal dituzten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2013ko urriak 30.
ALKATEA

Isidro Sanchez | Kapital-ekarpenengatik kaltetutako Fagor Etxetresnetako langilea

"Inpotentzia handia daukagu eta gure dirua itzultzea eskatzen diogu kooperatibari"

- Ordaindu komisioa sortu dute aurrezkiak Fagor Etxetresnetan dituzten lan bazkideek
- Langabezian eta bizitza osoko aurrezkiak arriskuan: "Geurea dena eskatzen dugu"

ENKO AZKARATE | ESKORIATZA

Gauek egunera langabezian geratu diren Fagor Etxetresnetako langileetako bat da Isidro Sanchez, Eskoriatzan bizi den arrasatearra. Garagartzan zihardu lanean. 16 urte zaroatzen han. Aurretik, bost urte eman zituen Fagor Etxetresnetako beste lantoki baten, Eskoriatzako Minietxetresnetan. 49 urte ditu. Langabeziak sortzen dion ziurgabetasuna areagotu egin zaio beste arazo bat dela-eta: kapitalera egindako borondatezko ekarpenak kobratuko dituen edo ez ezin jakiteak. Arazo hori daukaten 200etik gora lagunek osatu duten Ordaindu plataformako kide da.

Nortzuek osatzen duzue Ordaindu? Irailean batzar bat egin genuen, Arrasaten, esku artean arazo bera geneukan Fagor Etxetresnetako hainbat langilek. Komisio bat osatzea erabaki genuen. Handik dator Ordaindu. Harrezkero, Errektore Kontseiluarekin-eta batzartu gara, baina ez digute irtenbiderik eman, zor zaiguna kobratzeko itxaropenik ez digute eman. Informazio eske joan izan gara. Galdetu dugu egoera honetan zenbat langile gauden. Eskatu dugu garantiazko fondo bat sortzea zor zaiguna kobratuko dugula ziurtatzeko, eta dirua itzultzeko epe bat eskatu dugu. **Menpeko ekarpenen gainean-eta berba egin da azkenaldian. Hori da zuen kasua?**

Ez, ez dauka zerikusirik. Hau ez da kooperatibaren dirua, geurea da, geure aurrezkiei ahalik eta etekin handiena sortzeko kooperatiban sartu dugun dirua da. **Kapitalera egindako borondatezko ekarpenak eta kapital sozialari egindako maileguak erreklamatzeko diharduzue?**

Bai, hala da. Ulertzeko: badago jendea bere aurrezkiak banku baten epe finkoan edo pensio plan baten jartzen dituen, errendimendu bila. Gure kasuan, kooperatibari egiten diogun ekarpen edo mailegu bat da, inbertsio bat, pentsatuz kooperatibari laguntzen diogula kapital horrekin. Horren trukean, diru horrek errendimendu bat ematen digu eta irabazi hori sei hilean behin jasotzen dugu. Interesa merkatuaren arabera aldatzen doa. Urtero, urtarilaren 2an eta uztailearen 2an jasotzen genituen etekin horiek. Bestetik, zuk egindako ekarpen hori, zeure diru hori, nahi duzunean jaso dezakezu, eskatu eta hilabetera jasotzen duzu diru hori. Baina iazko azaroaren 1etik aurrera Fagor Etxetresnetako



Isidro Sanchez martitzenean Aretxabaletan. | ENKO AZKARATE

Errektore Kontseiluak, aldebakarrez, erabaki zuen ekarpen horiek ez itzultzea, kooperatibaren egoera zein zen ikusita. Interes batzuk kobratu genituen martxoan, baina uztailekoak ez ditugu oraindik jaso.

Eta kapital sozialari egindako ekarpenak?

Horiek ere eskatzen gabilta. Horiek dira dagoeneko, esaterako, erretiroa hartuta daukaten lan bazkideek egiten dituzten ekarpenak. Lanean zeudenean sortutako kapitala erretiratu beharrean, kooperatiban bertan uztea erabakitzen dutenen dirua da hori. Eta horiek ere ez dute interesik jaso eta egindako ekarpenak ere ez zaizkie itzuli.

Azalpenik jaso duzue zuzendaritzaren aldetik?

Ez, eta hori oso kezagarria da

"Garantiazko fondo bat eskatzen dugu, kobratuko dugula ziurtatzeko"

"Dirua ekarpenak egin dituzten lan bazkideena da, ez da kooperatibarena"

guretako. Burofax bat bidali dugu, azkenekoz, informazioa eskatzen, baina ez dugu erantzunik jaso. Batzar baterako dei egin digute, baina esan diegu planteatutako gaiari erantzun zehatzik ez badigute eman behar, ez goazela batzarrera.

Diozue engainatuta sentitzen zaretela. Zergatik?

Bai, bai, erabat engainatuta. Errektore Kontseiluan esan izan digute bazebiltzala gaiarekin, negoziatzen eta hau eta beste. Gaur arte. Horregatik, proposamen konkreturik ez badaukate ez gara berriro batzartuko haiekin. Hartzekodunen konkurtsoa konboka daiteke edozein momentutan eta ez gaude denbora galtzeko. Guk eskatzen dugu diru hori itzultzea berehala eta kopurua kuantifika dadila kooperatibaren zor moduan, eta, gero, zor horrekin zer egin behar den erabaki dezala erabaki behar duenak. Diru hori ekarpenak egin dituzten lan bazkideena da, ez da kooperatibarena.

Ze kopuruz ari gara?

Pertsonaren arabera da. Ez dakigu. Hori pribatua da. Edozelan ere, Balore Merkatuko Batzordean jasotako datuen arabera, 2010ean, borondatezko ekarpenetan, 53 milioi euro zeuden eta kapitalari egindako maileguetan, beste 42 milioi euro. 2011n ere antzekoak ziren kopuruak. 2012an, borondatezko ekarpenetan errekupe-

ratu ziren 8 milioi eta bestean 42 milioirekin jarraitzen genuen.

Itxaropenik baduzue?

Ez dakit. Argi daukagu diru hori gurea dela eta errekupe nahi dugula eta eskuetan daukagun guztia egingo dugula berreskuratzeke.

Fagor Etxetresnak hartzekodunen aurre-lehiaketan daude. Arriskuan ikusten duzue zuen dirua prozesu honetan?

Bai; izan ere, gu ere hartzekodunak gara. Gure enpresako hartzekodunak gara, horixe paradoxa triste! Hiru motatako hartzekodunak daude: batetik, pribilegiatuak, hau da, bankuak eta erakundeak; bestetik, arruntak, eta horien artean geu egongo ginatke; eta, azkenik, menpekoak, hau da, preferenteak.

"Aurrezkiei etekin handiena sortzeko kooperatiban sartu dugun dirua da"

"Arazoa izan da langile gehiegi izan ditugula produktuak fabrikatzeko"

Konkurto-administratzaile bat baldin badator, lehenasunen arabera banatuko ditu ondasunak eta ez dakigu guretako egongo den dirurik. Horregatik eskatzen dugu garantiazko fondo bat sor dezatela orain, zor diguten diru hori jasoko dugula ziurtatzeko. Ez dugu eskatzen dirua orain bertan itzultzeko, baina bai fondo bat sortzeko. Behin hori lotuta, hitzartuta eta sinatuta, berba egingo dugu dirua itzultzeko epeen gainean.

Honek guztiak ze egoeratan uzten zaituzte?

Hondamendian, gure aurrezki guztiak gal ditzakegulako. Kooperatibari egin genion derrigorrezko ekarpenekin ahaztuta gaude, hori ez dugu eskatzen. Gure kooperatibak daukan 800 milioiko zorrak ordaintzeko behar da hori. Borondatezkoak erreklamatzeko ari gara. Azkenaldian, soldataren %80 kobratzen ari ginen; orain, langabezian, kobratuko dugu %80 horren %80. Hipotekei, egunerokoari, seme-alaben gastuei, horri guztiari aurre egin behar diogu eta gure bizitzako aurrezkiak daude jokoan. Inpotentzia handia daukagu eta gure dirua itzultzea eskatzen dugu.

Baikor zara Fagor Etxetresnen etorkizunarekin?

Zuzendaritzatik eta Errektore Kontseilutik ondo dabilta borrokatzen. Zorrak birnegoziatu nahi dituzte eta bideragarriak diren negozioak indartu eta horiekin jarraitu. Baina hau lehenago egin behar zen. Fagor Etxetresnetako krisia ez dator 2008tik. Izan ere, garai onenetan ere ez zen diru askorik irabazten, mozkinak ez ziren handiak. Asko eraikitzen zen, eta, ondorioz, etxetresna asko saltzen ziren, baina berriro diot, irabaziak ez ziren handiak.

Zer egin behar zen?

Nik uste dut, oparaldian, Fagor Etxetresnen egitura behar baino gehiago handitu zela. Langile gehiegi ginen egiten genuen produktua egiteko. Jende gutxiagorekin egin genezakeen. Eta produktuari balio erantsi handiagoa eman. Efizientzia arazoa dela uste dut. Arazoa ez da izan soldata handiegi izan ditugula, ez delako egia, gure produktuak fabrikatzeko langile gehiegi izan ditugula baizik.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

ZULAI
PLAZAOLAhttp://goiena.net/
iritzia/

Nekazaritza ekologikoa

940an, Albert Howard-ek *An Agricultural Testament* argitaratu zuen eta nekazaritza ekologikoaren *biblia* bihurtu zen.

Monolaborantza, gehiegizko mekanizazioa eta ongarri kimikoak salatzen ditu eta konpostatze teknika bat elaboratzen du: Indore Metodoa; nekazaritza ekologikoan erabilitako lehen teknika.

Modu honetan, nekazaritza ekologikoa eta nekazaritza biodinamikoa jaiotzen zirenean, lurra-aren emankortasuna zaharberritzeko asmoz.

Gutxiengoa da nekazaritza ekologikoa, eta askok herrialde aberatsen nekazaritza dela uste dute, eta mundua elikatzeke gai ez dela pentsatu. Hala ere, nekazaritza ekologikoa bultzatzen duten proiektuak hazi egin dira hegoaldeko herrialdeetan.

Nekazaritza ekologikoak berotegi efektuko gas gutxiago igortzen ditu, ingurumena zaintzen du eta mundua elika dezake. Baina badaude nekazaritza ekologikoa kritikatu edo zalantzan jartzen dutenak; horien ustez, nekazaritza ekologikoa luxuzko nekazaritza da eta ez da gai biztanleria elikatzeke.

Egia da produktu ekologikoak ohikoak produktuak baino garestiagoak direla, baina errendimendu txikiagoen, eskulan-kostuen eta banaketa-kostuengatik da.

Biztanleria elikatzeke ezintasunari dagokionez, garatutako herrialdeetan, elikagai ekologikoak ohiko nekazaritzan ekoiztutakoak baino %8 gutxiago dira; herrialde ez garatuetan %80 gehiago dira. Herrialde hauetako nekazariak pobreegiak dira ongarriak erabiltzeko, eta horregatik, nekazaritza ekologikoak baliatzen dira. Honek frogatzen du benetan garestia dena nekazaritza konbentzionala dela, eta ez ekologikoa.

Arizmendi, Fagor Etxetresnen ondoan

Jokin Mujika
(Arizmendiko lehendakaria)
Debagoiena

Gu gara, zu eta ni, euskaldun eta kooperatibista, euskal ekintza kooperatiboa praktikatzeko dugu, zuk eta nik, geuk, hemen eta orain, Leintz Bailaran.

Arizmendi ikastola Mondragon Taldeko kooperatiba da, hezkuntza-kooperatiba, hain zuzen ere.

Ikastola garelako, hezkuntza-kooperatiba euskalduna izatea dugu ezaugarri bereizgarria.

Geure seme-alabei, gure haur eta gazteei, geure ikasleei, alegia, lagundu nahi diegu bizitzan sortuko zaien edozein egoerari aurre egiteko pertsona euskaldun konpetenteak izaten.

Eta aldi berean, guk, helduok, ikastolako profesionalok, gurasook eta kolaboratzaileok geure burua hezten dugu, heziz elkarri laguntzen diegu, geure ikasleekin batera, geure inguruko eragileekin interakzioan.

Une mikatzetan du abagunerik onena elkartasuna erakutsi nahi duenak, gozoetan ere ezinbestekoa dela ahaztu gabe.

Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatiba egoera larriaren dugu, enpresa bera eta bertako langile den pertsona bakoitza.

Arizmendi ikastola osoak bere elkartasuna agertu nahi die, bai Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibako langileei, eta bereziki ikastolan bertan zuzen edota zeharka egoera larri honek eragiten dien guztiei.

Eta elkartasunarekin batera, Arizmendi ikastolak ekingo dio egoera larri horrek eskatzen dion erantzun eraginkorra bilatzeari, bai epe laburrera, bai epe ertainera; izan ere, gure ikastolak bere ikasleak hezi behar ditu edozein egoerari aurre egiteko, euskalduntasunetik eta kooperaziotik.

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira:
Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Halaxe jokatu beharra dauka, hezkuntza-kooperatiba bezala; alegia, bere inguruan suertatzen zaizkion egoera guztien aurrean, beren ikasleek lekukorik onena izan dezaten hitzetan eta ekintzetan.

Animo, horretan saiatuko gara, zu eta ni, gu, eta erakutsi dezagun euskaldun eta kooperatibista izaten dakigula.

Txus Goikoetxea gose greban

Txus Goikoetxea
(Sevilla II-ko preso politikoak)
Sevilla

Borrokaldia hastea erabaki dugularik, honetara bultzatu gaituen egoeraren berri Euskal Herriari helaraztea da idazki honen helburua.

Duela lau urte, espetxe honetara lehen euskal presoak ekarri gintuztenetik, beti isolamendu modulu berezian eduki gaituzte.

Ez digute inolako aktibitate eskura jarri eta ondorioz lau orduko patioaldia baino ez dugu egunean, bertara hirunaka ateratzen gaituztelarik goiz edo arratsaldean.

Honek, bi egunez behin, ziegan 26 ordu jarraian igaro beharra eragiten digu.

Patiara irteterakoan metal detektatzaileak igaroarazteaz gain, ukimenezko miaketa egiten digute gorputz osotik, noiznahi barrabilak edo zakila igurztera helduz, aldioro tentsio uneak sortuz.

Honek eragindako egoerarengatik 72. artikulua delakoa ezartzen digute sarri,

artikulu honek sortzen duen inpunitate egoerak (kideengandik banatuak, bakartasun osoa, inkomunikazioa...) ondorio larriak ekarri dituelarik askotan.

Mehatxu zein irainak, oheari eskuburdinekin lotuta bukatu eta baita jipoi bortitza eragin ere.

Kartzelarien aldetik sorturiko tentsioak eta ezuste egoerak jada bi preso politikoren jipoitzeak eragin dituzte.

2010eko azaroaren 14an lehenengoa, Grapoko kide batek pairatutakoa eta 2013ko martxoaren 25ean bigarrena, Arkaitz Bellon euskal preso politikoak pairatutakoa.

Aurrez aurreko bisitetatik bueltan miaketa integralak (osoki biluztera behartuz) egin izan dizkigute.

Senideei ere miaketak egin izan dizkiete aurrez aurreko edo lokutorioetara sartzeko eta honen ondorioz zenbait bisita galdu ditugu.

Sendagilearen asteroko kontsulta ez zaigu bermatzen.

Ezinezkoa zaigu noiz etorriko den jakitea eta ohikoa da bi edo hiru astez sendagilerik ez agertzea.

Hainbat kidek osasun arazo kronikoak dituztela kontuan hartuta, ezin larriagoa bilakatzen den egoera da hau.

Egunero pairatzen ditugu eskubide urraketa zein gehiegikeria hauek guztiak, ezin uler daitezke espetxe honetako Segurtasuneko zuzendariordeak gertakari hauek babesteko, elikatzeke eta sustatzeko duen jarrerarik gabe.

Gure aurkako probokazioa etengabea bilakatzen da

eskubide urraketa hauen guztien bidez.

Egoera bideratzeko helburuarekin hainbat aldiz espetxeko Z-rekin bildu izan gara, baina honek ez du sekula adierazitakoa bete, behin eta berriz jan izan duelarik bere hitza.

Epaile zein espetxeetako idazkaritza orokorrari bideratutako kexa eta salaketek ere emaitza hutsalak izan dituzte.

Azkenean, borrokari ekitea baino ez zaigu geratu.

Helburua bizitza duina eta osasuna zaintzeko bermea eskuratzea da.

Honetarako, isolamendu mugagabea amaitzea, kide guztiok batera egotea, gutxieneko eskubideak bermatuak izatea eta gure aurkako erasoaldiak etetea beharrezkoa izango da.

Hauek dira gure oinarriko aldarrikapenak euskal preso politikoen kolektibo osoarekin batera Euskal Herriratzan ez gaituzten bitartean.

Dispersioa bukatzea da honelako egoerak behin betiko amaitzeko modu bakarra.

Borroka honetan gure herriaren babesa eta elkartasuna beharrezkoa izango dugulakoan gure borrokaldiarekin bat egitera deitzen zaituztegu, guztiok bat eginez lortuko baitugu.

Beraz, bada garaia!

Euskal preso politikoak amnistiaren bidean Euskal Herrira!

Zorionak bergarrei!

Amalia Osa
(Bergara Zero Zabor)
Bergara

Zorionak bergarrei!

Azken astiotan ikusitako ekintzek barrua poztan dabe.

Alde batetik, urriaren 13an erreikia garbitzeko deialdixak euki zeban erantzuna: 350 bergarar tokiz kanpo dagon zaborra jasotzen, auzolanian, borondatez eta giro alaxan.

Seguraski eurak baino beste askok zikindutako errekiaren osasuna berreskuratu nahixan, ingurugirurakiko benetako arduria erakusten.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amalia Mundiano, Zortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

ONATI

Inguruko natura ezagutu eta dibulgatzeko sortutako taldea

- ▶ Ibailagun ekimenean lagundu ostean, informazio panelak jarriko dituzte erreken ibiltokian
- ▶ Laster, herriko parke nagusietan, bertako natura aniztasuna identifikatzen hasiko dira

IMANOL GALLEGO | ONATI

Askotan gertatzen den moduan, kanpoko natura etxekoa baino hobeto ezagutzen dugu, baina etxetik gertu, egunero ikusi arren, gutxitan identifikatu edo aintzat hartzen dugun bioaniztasun handia dago. Oñatin, natura ogibide edo zaletasuna duten dozena bat lagunek Oñatiko Naturzaliak taldea sortu dute. "Hegaztiak behazetik sortu genuen taldea, baina etorkizunerako proiektu gehiago ditugu", dio taldeko kide Aitor Galdosek.

Hura basozaina den arren, eta taldean biologoak ere badauden arren, "pertsona guztiei zabalik" dagoen taldea dela azpimarratzen du. Taldeak urte eta erdiko ibilbidea dauka, eta dagoeneko hasi dira etorkizunari begira lan-ildoak planifikatzen.

Hurrengo proiektuak

Aranzadi zientzia taldearekin elkarlanean hegaztiei eraztunak jartzeko ikastaroa egiten dabilta zenbait kide, eta herrian dauden ur-zozoei, martin arrantzaileei eta buztanikara horiei eraztuna jartzea da esku artean duten proiektuetako bat.

Horretaz gain, herrian dauden Olapotoko, San Martingo eta Santa Lutzia parkeetako landaretzaren eta faunaren gaineko informazioa zabaltzeko asmoa ere badute. Azken hori ez da egiten duten lehen dibulgazio ekintza, Uraren eta Errekaren Astean Natur Eskolarekin elkarlanean ibili ziren-eta Oñati erreken ibilbidea hainbat puntutan erakusketa jartzen. Errekak bioaniztasuna eta naturaren osasun maila neurtzeko termometroak izan ohi dira.



Aitor Galdos eta Haizea Agirre eskuetan bi ur zozo dituztela. | OÑATIKO NATURZALIAK

ESANAK

"Ur-zozoa herriko erreketan agertu izana urak duen osasunaren erakusle da"

AMAIA IRIZAR | BIOLOGOA

"Herriko erreketan ur-zozoa aurkitu izana urak duen osasunaren erakusle da", dio taldeko kide Amaia Irizar biologoak.

Hegaztiez gain, errekek anfibio mota ugariaren ekosistema dira. Erreka askotan egin diren bideratze lanek animalia horien ekosistema hondatu ostean, taldeak anfibioak ugaltzeko toki bat ere egokituko du.

Erakusteko ikasten

"Ez gara profesionalak, gure asmoa ikastea da", dio Galdosek. Horren

ostean, baina, asmo handiagoa dago. "Gure ezagutzaren bitartez, herriko bioaniztasuna erakutsi eta hura gehiago babestea lorpen polita izango litzateke", dio basozainak.

Horretarako, baina, taldekide gehiago beharko dituzte: Oñatiko Naturzaliak kide berriak hartzeko zabalik dituzte ateak. Intereza dutenek onatikonaturzaliak@gmail.com helbidera idatz dezakete. Taldeak, gainera, Facebooken *Oñatiko Naturzaliak* izenarekin orri propioa dauka.

AITOR GALDOS
BASOZAINA

"Kide izateko, natura ezagutzeko gogoia izatea nahikoa da"

Ogibideari begiratu gero, argi geratzen da Aitor Galdosek natura ongi ezagutzen duen pertsona horietako bat dela. Orain, Oñatiko Naturzaliak taldearen barruan, bere ezagutza partekatzeaz gain, beste kideengandik gehiago ikasteko aukera dauka.

Noiz sortu zenuten taldea?

Duela urte eta erdi hegaztiak behatzen hasi ziren lauzpabost pertsona, eta ekimen horri jarraipena emateko asmoarekin sortu zen taldea.

Zein ekimen egin dituzue?


Hasi besterik ez gara egin, baina dagoeneko erreka garbiketara parte hartu dugu. Horrekin batera, herrian dauden hegaztiak behatzen eta identifikatzen ere hasi gara.

Eta etorkizunean?

Eraztuntzaile izateko ikastaroa egingo dugu, gure behaketa lana hobeto egin ahal izateko.

Kide izateko aditua izatea beharrezkoa da?

Ez, natura ezagutzeko gogoia izatea nahikoa da. Ez gara profesionalak, gehiago ikasteko sortu genuen taldea.



Buztanikara horia, sare batean harrapatuta. | O.N.



Amaia Irizar, ur-zozo batekin. | O.N.



Martin arrantzalea hegazti txikia. | O.N.

Udal tasek %2ko eta %4ko igoera izango dute 2014an

Martitzenean onartu ziren udal tasak; bi mozio ere atera zituzten aurrera

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Martitzenean ezohiko bilkura egin zuten Arrasaten, eta, esaterako, datorren urteko ordenantza fiskalak izan zituzten hizpide. Proposamena onartuta, %2ko igoera izango dute udal tasek orokorrean, eta zaborrak %4koa izango du.

Udal zerbitzuak bermatzeko

Udal Gobernuak aurkeztutako ordenantza fiskalen proposamenak aldeko hamaika boto –Bildu eta Aralar– eta kontrako lau boto (EAJ) izan zituen; beste lau abstenitu egin ziren (PSE).

Bilkuraren amaieran Maider Morras Udal Gobernuaren bozeramaleak aditzera eman zuenez, hainbat arrazoirengatik proposatu dute %2ko igoera egitea. "Udalak ematen dituen zerbitzuak bermatu behar ditu, batez ere, ekonomiko ki eta sozialki erantzun bat emateko herriari. Horregatik, derrigorrezkoa ikusten dugu tasen igoera".

Bestalde, zaborraren kasuan tasak %4 igoko dira eta %25eko bonifikazioa izango dute konposta egiten dutenek. "Portzentaje horren barruan sartuko litzateke konpos-

ta egin ezean hondakin horien kudeaketatik eta ordaindu beharrekoa. Horregatik hobaria", azaldu zuten.

Salbuespen kasu gehiago

Ordenantzetan beste salbuespen kasu batzuk ere onartu zituzten. Hori horrela, ohikoak ez diren etxeengatik %50eko gainkarga aplikatuko zaie aurrerantzean honakoei: besteak beste, antolamendutik kanpo daudenak; ohiko bizileku ez direnak; merkataritza edo zerbitzu jardueretarako erabiltzen direnak eta Udalaren bai-

mena dutenak; eta elkarrekin kultura jarduerak egiteko erabiltzen dituztenak.

Oposizioaren arrazoiak

Udal ordenantzak igotzeko proposamenari abstentzioarekin erantzun zion PSE-EE alderdiak martitzenean.

EAJk alderdiak, ostera, igoeraren aurka bozkatu zuen. Arrazoiaren artean, "herriak bizi duen egoera zailaren aurrean" –Fagor Etxetresenen egoera tarteko– tasen igoerak ez duela fundamenturik uste dute. Eta Bilduri galdetu zioten "solidaritetea bezalako printzipio kooperatibista garrantzitsuari keinu bat eginez", zergatik ez dituzten uzten bere horretan udal tasak.

Udal Gobernuaren izenean Morrased erantzun zuen igoera horrek herritarrei ez diela esfortzu handirik eskatuko. "Badakigu garaiak ez direla onenak eta herritarrak gaizki pasatzen ari direla. Horregatik, une txarra bizi dutenek hobaria izango dituzte, eta diru-

laguntzak ere egokituko ditugu egoerara".

Bestalde, EAJk hutsik dauden etxeen errekararen harira haxe gaineratu zuen: "Herritarrek egin dituzten hainbat erreklamazioen aurrean, etxea hutsik badago ez dela zaborrik sortzen, Udalak kasu hauetan zabor tasa %100 kargatzea erabaki du. Zertan geratzen gara, etxea hutsik dago ala ez dago hutsik?".

Bi mozio aurrera

Bi mozio ere onartu zituzten martitzenean. Bata Bilduk aurkeztutako *Epaiketa politiko gehiagorik ez!* izeneko izan zen.

"Urriaren 14an eta 17an hamarnaka euskal herritarren aurkako epaiketa hasi zela eta", besteak beste, ez dadila epaiketa politiko gehiagorik egin eskatzen zuen mozioak. Gainera, "funtsezko esku-bideak baldintzarik gabe" errespetatzea eta "elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar daitezela" ere jasotzen du mozioak.

Bestalde, Herri Bilguneak Jesus Mari Zabarte, Jose Gabriel Urizar eta Luis Mari Azkargorta aske uztea eskatzen duen mozioa aurkeztu zuen.

Arrasateko Udalarri zuzendutako hainbat eskaera jasotzen dira mozioan: "Beraien askatasuna eskatuz Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako epaileari eta Justizia Ministerioetara idaztea eta hiru kasuen jarraipena egitea eta egoerak eskatzen duenetan laguntza instituzionala ematea".

DATUA

%25

BONIFIKAZIOA

Zaborren tasetan %25eko bonifikazioa izango dute konposta egiten dutenek, martitzenean onartu zuten.



Bilkuran Bilduk aurkeztutako mozioa bozkatzeko. | ZVDM.



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
Sociedad de Socorros Mutuos

www.sanfelipeapostol.com
funerariasanfelipe@gmail.com

Gipuzkoa etorbidea 33 behea
Tel.: 943 79 16 82
Tel./Faxa: 943 77 30 22

ARDURADUNAK
Alberto Ojanguren Ugarte
Kontxi Bedia Madinabeitia



SAN FELIPEKO

ZUZENDARI BATZORDEA:

Zutik, ezkerretik eskumara:

Alberto Ojanguren (Maioral), Ramón Azcarate (Presidenteordea), Juan Jose Pagaldai (Presidentea), Kepa Ormaetxea (Bokala), Mikel Iturbe (Bokala).

Eserita, ezkerretik hasita:

Santiago Garai (Diruzaina), Josu Axpe (Bokala), Juan Rodríguez (Bokala), Altor Ormaetxea (Bokala), Joshe Elorza (Idazkaria).
Argazkian ez dagoena: Alberto Laskurain (Bokala)

1. ERAKUNDEA SAN FELIPE APOSTOL eetekinak lortzeko asmorik ez duen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzza eta Lan Departamenduko Gizarte Segurantzza Zuzendaritzan izena emanda duen elkarte bat da, **1.898ko apirilaren 13an sortu zen eta 13.307 bazkide** ditu.

2. ESKAINITAKO PRESTAZIOAK

San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:

- **Espaniako Estatu barruan** egin beharreko leku aldaketak, hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea.
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Hildakoen jaste lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Medikuziurtagiria
- **750** euroko diru-laguntza, hildako bakoitzagatik.

3. SARRERAKO KUOTAK

40 urtera arte sarrera doan	56 etik 60 urterarte.....	390 €
41 etik 45 urterarte.....	61 etik 65 urterarte.....	560 €
46 etik 50 urterarte.....	66 etik 70 urterarte.....	900 €
51 etik 55 urterarte.....	70 urtetik gorakoak	1.350 €

4. URTEKO KUOTAK

Titularrak:**25 €** Ezkontideak:**25 €** Onuradunak:**12 €**

**INFORMATU
ETA EGIN
BAZKIDE**

Ospitaleko hondakinen batze maiztasunak arazoak sortu ditu

Ospitaleak lehen zuen sei eguneko hondakin batze zerbitzua berreskuratu du

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Debagoieneko Ospitaleak sortzen dituen hiri hondakin pilaketak inguruko bizilagunen haserrea sortu du. Euskadiko egunaren zubiaren ostean, irakurle batek ospitaleko zaborren inguruko argazkia eta kexa helarazi zizkion Goienari, eta Goienak azalpenak eskatu ostean, jakin dugu Debagoieneko Mankomunitateak ezarri zituen batzeko maiztasunaren aldaketek hiri hondakinen pilaketa desagokia sortu zuten. Aurreko astean, zerbitzua egun bat aurreratu eta astelehena arte ez ziren hondakinak batu. Horrek irudietan ikusten duzuen ondorioak ekarri zituen.

Egoera berri hori urri hasieran hasi zen, hiri hondakinak batzeko zerbitzua sei egunetik hiru egunera pasatuta. Mankomunitateak adierazi duen moduan, "ospitaleari industriak duen maiztasun bera ezarri zitzaion". Gauzak horrela, erietxea egoera berrira moldatu eta haren erabiltzaile eta bizilagunen higieua bermatzeko bere kabuz bi zabor edukiontzi berri jarri zituen eraikin zahararen atzean. Ahalegin hori ez zen nahikoa izan, eta, lau egunen ostean, edukiontziak bete eta zabor poltsak lurlean pilatu ziren.

Ospitaletik argitu dutenez, inguruan ibiltzen diren animaliek poltsak apurtu eta hondakinen zati bat agerian geratu zen. Jendea lasaitze aldera, erietxetik hau azpimarratu gura izan dute: "Ospitaleak zehatz-mehatz bereizten ditu hiri hondakinak eta hondakin biosanitarioak"; hortaz, atzealdean pilatzen diren hondakinak ez dira arriskutsuak, "hondakin biosanitarioak oso protokolo hertsien bitartez tratatu eta desagerrarazten dira".

Hala ere, asteleheneko pilaketak bizilagunen haserrea pizteaz



Aurreko aste bukaeran zabor ugari pilatu zen. | UGUTZ GARITAINAINDIA



Janari hondakinak eta fardel zikinak, lurlean. | U.G.



"Ospitaleak zehatz-mehatz bereizten ditu hiri hondakinak eta biosanitarioak"

"Mankomunitatetik bilketa honekin ahalik eta zerbitzu onena eman nahi dugu"

gain, ospitaleko arduradunen kezka ere piztu zuen.

Behin-behineko zerbitzua

Ospitaleko arduradunek egoera larri hori ikusi eta gero, astean Mankomunitatearekin batzartu ostean, aurrez ospitaleak zuen batze zerbitzua berreskuratzea adostu da. Akordio hori, hurrengo ingurumen batzordean joratu eta bozkatu arte, behin-behinekoa izango da. Gauzak horrela, Mankomunitatetik argi azaldu dute gainontzeko herritarrekin eta industriarekin egiten duten moduan, euren asmoa "ahalik eta zerbitzu onena" ematea dela.

Grimm anaien ipuin gozoena antzerki eginda

I.G. | ARRASATE

Haur antzerki klasiko batek emango dio hasiera azaroko kultura agendari. Glu Glu antzerki konpainia ezagunak *Hansel eta Gretel txokolatzeko etxean* obra taularatuko du larunbatean. Amaia antzokiko agertokia fantasiaz beteko du eta gazte-txoeak, 17:00etan, bi anai-arreba horien abentura ezagunekin gogotik gozatuko dute.

Hansel eta Gretel basoan galduta ibili ondoren, txokolatzeko etxea aurkituko dute. Bertan, sorgin maltzurak haurrak giltzapetuko ditu, geroago jateko asmoz. Sorginak sabela beteko du? Hansel eta Gretel bihurriak onik irtengo dira?

Ipuin klasikoa baino gehiago

Egokitzapen horrek, kontakizun klasikoa errespetatzeaz gain, elementu berritzaileak ere izango ditu. Gaur egungo osagai eszenikoek eta musikalek ukitu berezia emango diote kon-



Txokolatzeko etxea. | GLU GLU

takizunari. Seguruenez, gazte-txoeak haur literaturaren klasiko bat ezagutzen duten bitartean, gurasoek gaztetan ezagututako kontakizun eraberrituarekin ere gogotik disfrutatuko dute.

Gogoratu beharra dago sarreak beti bezala Amaia antzokiko txartel-leihatilan izateaz gain, Udalaren eta Kutxa-banken webguneetan ere 5 euroren truke izango direla.

Udalak, Aldundiaren laguntzarekin, basozain lanetan aritzeko bost langabe kontratatuko ditu

Taldeburu bat eta lau baso-langile hartuko dituzte eta kontratuaren iraupena bost hilabetekoa izango da. Taldean arituko dira lanean, eta, besteak beste, erreka eta basoetan garbiketa eta mantentze-lanak egin beharko dituzte. Prozesuan izena emateko azken eguna gaur da, eta parte hartu gura duenak BAZen egin beharko du eskaera.

Aurtengo Santamas eguneko artisau azokan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago

Azokan parte hartu nahi dutenek www.santamasak.com webgunean dagoen formularioa azaroaren 22a baino lehen bete beharko dute. Webgune berean onarpenerako irizpideak ere ageri dira. Santamas Komisiñoko Artisautza lantaldeak azaroaren 30an jakinaraziko du zeintzuk izango diren aurtengo ferian parte hartzeko artisau eta postu aukeratuak.

'Adingabeak eta sare sozialak' berbaldirako izen-emate epea gaur amaituko da

Antolatzaileek esandakoaren arabera, "seme-alabak geroz eta gazteago hasten dira teknologia berriak erabiltzen, eta gehienetan ez haiek, ez gurasoek, ez dakite sor daitezkeen arriskuei aurre egiten". Horregatik, Udalak 12 eta 18 urte arteko seme-alabak dituztenendako *Adingabeak eta sare sozialak* berbaldirako antolatuko du azaroaren 13rako. Gaur da izena emateko azken eguna.

Pilates hastapen ikastaroetarako izen-emate epea astelehen goizean itxiko dute

Ikastaro bakarra izango den arren, bi txanda egongo dira: lehena astelehenean bertan hasiko da eta bigarrena, aldiz, martitzenean. Hastapen ikastaroak lau saio izango ditu eta bazkideek 19,10 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, hamar euro gehiago. Izena emateko, Musakolako kiroldegira jo behar da.

Segiko kideen aurkako epaiketak salatzeke, arratsaldean torturaren aurkako parodia egingo dute

Parodia 19:00etan hasiko da eta Portaloian egingo dute. Arrasateko Ezker Abertzaleak prentsa ohar bidez hauxe adierazi du: "Torturatzaileei aurre egin behar diegu. Batez ere, duten babes egitura judicial, mediatiko eta politikoa ahuldu behar dugu". Eta "torturatuei maitasuna adierazteko" ekitaldia ere izango da.



ANDER LARRAÑAGA

Iktusaren efektuak ezagutzeko eguna

Martitzena Iktusaren Nazioarteko Eguna izan zen. Herritarrek gaixotasuna hobeto ezagutzeko, eta Aita Menniko garuneko gaitz unitatearen eskutik, Azoka kaleko Eguneko Zentroan doako balorazioak eta iktusa ekiditeko aholkuak eman zituzten. Ondoren, kulturaren iktusa ekiditeko moduei buruzko hitzaldia egin zuten.

Egun osoan egongo da zabalik bihar kanposantua

O.E. | OÑATI

Herriko loradendek enkargu asko jaso dituzte, aurten ere, biharko, Domu Santu egunerako. "Erramuak eta landareak ere enkargatu dizkigute, baina, batez ere, zentroak, Oñatiko hilerria handia da-eta", dio Bellotza loradendako Aitor Ugartek. "Askok etxetik ekartzen dizkigute loreontziak eta hantxe prestatzen dizkiegu zentroak", azaldu du Kimuko Iban Gonzalezek. Denda biak zabalik egongo dira bihar, egubakoitza, herritarrek enkarguak jaso ditzaten.

Oñatiko hilerria egun osoan egongo da zabalik bihar, egu-nero egon ohi den moduan.



Oñatiko kanposantua. | O.E.



Jendea autobusera igotzen, eta iritziak jasotzeko gunea. | FORU ALDUNDIA

Ekarpen ugari autobus zerbitzua hobetzeko

Herritarren iritziak, proposamenak eta kexak jasogura ditu Aldundiak, zerbitzu hobea eskaintzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Datorren urtean berriro behar ditu Gipuzkoako Aldundiak autobus zerbitzuen kontzesioak, eta, zerbitzu hobea eskaintzeko helburuarekin, herritarrei galdetu gura die zelan hobe daitekeen zerbitzu hori. Bada, horretarako, batzarrak egiten dihardute Gipuzkoako hainbat herritan, baita

Oñatin ere. Kale inkestak egin dituzte eta galdetegi bat ere banatu dute, azaroaren 15a aurretik erantzuteko. Pake Lekun bilera irekia egingo dute ekarpenak jasotzeko.

Ekarpenak

Orain arteko ekimenetan herritarrek emandako iritziak eta

ekarpenak bat baino gehiago dira. "Aipatu dute, esaterako, herrien arteko autobus zerbitzuen arteko ordutegien inguruko koordinazio falta dagoela. Hezkuntza zentroetara ordu jakinetan egoki iristeko zerbitzu gehiagoaren beharra dagoela ere bai, 20 minutuko maiztasunarekin eta autobusen arteko konexio egokiagoarekin. Markesinetan dauden panel digitalak egokitzea ere eskatu dute, autobusa noiz datorren jakiteko. Horri lotuta, Oñatiko auzoetara joateko geltokiak zeintzuk diren ondo adieraztea ere bai, gidariek jakin dezaten non gelditu behar duten. Elorregiko geltokia txikia dela ere jaso dugu, batez ere bi autobus elkartzen direnean, eta ilun dagoenean segurtasun faltaren sentazioa ere sortzen dela han", adierazi du Itziar Eizagirrek, autobus zerbitzua hobetzeko proiektuan Aldundiarendako lanean dabilen teknikariak.

Herrira begirako zerbitzuaz ez ezik, gai orokorragoen inguruko ekarpenak ere egin dituzte herritarrek, Eizagirreren esanetan: "Adibidez, bailara mailako mugikortasun puntu nagusien (hezkuntza zentroak, lantegi nagusiak, aisialdi-guneak, ospitaleak, erosketa zentroak ...) azterketa egitea eta horren arabera planingintza bat antolatzea".

Bigarren fasea

Ekarpenak jaso ostean, autobus zerbitzua hobetzeko proiektua idatziko dute abendutik 2014ko otsaila bitartean.

Bertso finalerako sarrerak agortu egin dira Txokolateixan

Oñatira ekarri dituzten Bertso Txapelketa Nagusiko finalerako sarrera guztiak agortu egin dira, Oñatiko Bertso Eskolak aditzera eman duenez. Txokolateixan egon dira salgai sarrerak, eta denak saldu dira: 100. Gehiago ez dituzte ekarriko. Errosteko asmoa duenak, beraz, Internet bidez edo beste herri batzuetako salmenta puntuetan erosi beharko ditu. Aldiz, BECera autobusez joateko txartelak eta bazkarikoak oraindik gelditzen dira Txokolateixan.

Arantzazura joateko autobusak neguko ordutegia du

Oñati-Arrikruz-Arantzazu autobus zerbitzuak neguko ordutegia izango du bihurtik aurrera (egubakoitza). 07:30ean hasiko da zerbitzua Oñatin eta eguerdian bi orduko ete-naldia izango du; Arantzazutik 14:00etan abiatuko da azken autobusa. Arratsaldeko zerbitzua 16:30ean hasiko da Oñatin eta azken autobusa 18:00etan jaitsiko da Arantzazutik. Arrikruzera joateko, 10:30eko autobusa hartu beharko da Oñatin eta 13:15ean Arantzazun.



MOYUA

HILETA ZERBITZUAK
24 ORDUKO ZERBITZUA



- Kliniketara joaten gara (Zerbitzu osoak egiten ditugu)
- Leku aldatzeak
- Dokumentazioa
- Koroak
- Eskelak (Irrati, egunkari eta paretetan)

Tel.: 943 78 34 47

943 78 06 71

Sakelakoa: 617 44 24 66

mmoyua@telefonica.net

Obispo Otadui 27 (Bolibar auzoan)

20560 OÑATI

Alkatearen dimisioa eskatu eta osoko bilkura laga zuen EAJk

Alkateak dio "tentsionamendu" horrek ez diola herriari onik egiten

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Astelehenean ohiko osoko bilkura gorabeheratsua izan zen Udalean. Beste gai batzuen artean, 2014. urterako ordenantza fiskalak bozkatzekoak ziren, baina horiek barik, EAJko zinegotziak izan ziren protagonista. Bilkura hasi eta gutxira, bigarren puntuan, alkatearen jakinarazpenen atalean, Jaione Isazelaia alkateak Fagorren gaineko hitz batzuk egin ostean, Aintzane Oiarbide EAJren bozeramaileak hartu zuen hitza. Hark ere Fagorri erreferentzia egin ondoren, eta alkateari beste gai baten gainean berba egiteko baimena eskatu eta gero, hondakinekin lotutako adierazpena irakurri zuen, eta, amaitu bezain laster, EAJko bost zinegotziek zutitu eta osoko bilkuren aretotik alde egin zuten.

Oiarbidek "atez ateko sistema inposatzeko erabakia" hartu izana leporatu zion, beste behin, Gobernu Taldeari, "inolako azalpen ekonomikoa ezta teknikorik eman gabe, nahiz eta guk informazioa eskatu". Erabaki horrek "herriarren egunerokotasun eta intimitatean eragina" izango duela ere gehitu zuen, eta "baita Udaleko diru-kutxetan ere". Horrekin guztiarekin batera, "ezkutuan aritzea" egotzi zion Gobernu Taldea osatzen duten Bilduko eta Aralarako zinegotziei.

Baina Aintzane Oiarbideren eta bere taldearen ustez onartezia dena "hainbat eta hainbat herritar gutxiestea" da, eta esan zuen: "Ez dituzue aintzat hartu sinadurak, manifestazioak, zintzilikatutako poltsak, ezta herri kontsulta egiteko herritarren elkarretaratzea ere. Bilkura horren biharamunean bertan eman zenioten erantzuna zintzilikarioak jartzen hasita". Eta gehitu zuen: "Atez atekoaren aldeko gehiengo isilaren aitzakiarekin hasi zarete zuten inposaketari bide emanez. Rajoik ere aitzakia bera erabili zuen Kataluniako Diada egunean independentzia aldarrikatzeko egindako giza katearen garrantzia gutxiesteko".



Asteleheneko osoko bilkura, EAJko bost zinegotzien aulkia hutsik daudela. | MONIKA BELASTEGI

Zerga gehienak %1 igoko dira

Asteleheneko bilkuran 2014. urterako ordenantza fiskalak onartu ziren Gobernu Taldearen eta PSE-EEren kontrako botoekin —EAJk aretoa utzita zeukan ordurako.

%1eko igoera orokorra izango dute datorren urtean udal tasa eta zergek. Lauri Askargota Ogasun batzordeburuak azaldu zuenez, KPIa hartu dute kontuan igoera ezartzeko orduan.

Baina igoera orokor horretan egongo dira salbuespenak, zaborrak batu eta deuseztatzeagatik ordaindugun tasa %4 igoko da datorren urtean. Udalek Mankomunitateari egin beharreko ekarpenak %7-8 igoko dira datorren urtean, eta, iaz onartutako bideragarritasun planaren arabera, zabor tasa lau urtean %20 igotzea aurreikusten da.

Kiroldegia eta igerilekuari dagokionez, igoera orokorra



Agorrosingo aurrealdea. | GOIENA

%1ekoa izango den arren, badira salbuespenak eskaintzen dituen zerbitzu batzuetan: haur igeriketa zein igeriketean, aurreko urteetan hasita eta datorren urtean amaituko den kostuekin parekatzeko prozesuaren barruan, igoerak %4tik 16ra izango dira.

PSE-EEko Barrenetxea zinegotziak esan zuen Ogasun batzorde baten esandakoaren arabera, igoera hasiera baten %2koa izatekoa zela, eta argibideak eskatu zituen. Askargotak azaldu zion

abuztutik irailera KPIa %1,7tik %0,7ra jaitsi zela.

EAJri dagokionez, eta ordenantzen harira, bilkura utzi aurretik esan zuten euren proposamena "Ogasun batzordean eta publikoki" azaldu zutela, baita "Gobernu Taldearen proposamenari erantzun ere", eta ez dutela "faltsukeriarik esan".

Askargotak, berriz, "publikoki bai" baina "batzordean ez" dutela proposamenik egin gehitu zuen, eta ez dela egia EAJk esandakoa.

Bada, "bergararren errespetu falta hori ikusita eta gure informazio eskaerak behin eta berriz nola baztertzin dituzuen ikusita" esanez, Jaione Isazelaia alkatearen dimisioa eskatu zuten eta baita herritarrei azaroaren 9an eta 10ean egingo den herri kontsultan parte hartzeko gonbita egin ere. Ondoren, aretoa laga zuten eta une hartan publikotik "lotsagabeak" eta "joan Raxoirekin" esaldiak entzun ziren.

"Tentsionamendua ez da ona"

Gertakaria "probokaziotzat" jo zuen Udal Gobernu Taldeak, eta, Jaione Isazelaia Goienari esandakoaren arabera, EAJk azken boladan bere jarrera "gogortu" egin du: "Beldur handia daukagu. Tentsionamendu honek Bergarari ez dio egingo inolako mesederik. Saiatu gara negoziatzen eurekin eta ez dugu ezer lortu. Bilera asko egin ditugu eta ez dugu ezer aurreratu ez helburuetan eta ez sisteman ere, eta guk serio hartu dugu, benetan, negoziazio mahai hori". Horrekin batera, herritarrei lasaitasun mezua bidali nahi izan die alkateak: "Herritarrei aukera eman diegu hurbiltzeko guregana eta jarraitzen dugu aukera hori eskaintzen. Eta, batez ere, lasaitasun mezua bidali nahi dut. Aldaketa oso txikia izango da eta mundu guztiak ondo egingo du".

Osoko bilkuran, bestalde, eta nahiz eta EAJko ordezkariak egon ez, alkateak berretsi egin zituen jeltzaleei sinaduren gainean eskatutako argibideak, aktan hala jasota gera zedin. "Zer dela eta deitzen diezue sinadura bilketa izen zerrenda hauei sinadurarik jaso ez denean? Guztira, 26 sinadura kuantifikatu ditugu. Zergatik daude Bergarakoak ez diren izenak zerrendetan? Besteak beste, Arrasateko zinegotzi batena, bikoiztuta, gainera".

Eta sinadurekin lotutako datu gehiago ere eman zituen Isazelaia alkateak; esaterako, esan zuen 600 izenetik gora daudela errepikatuta "bi, hiru, lau eta baita bost bider kopurua puzteko borondate garbiarekin", eta 260 izen daudela letra berarekin idatzita.

Juanje Amasorrain Aralarako ordezkariak ere hartu zuen hitza EAJko ordezkariari garbi lagatzeko hondakinen mahaira ez zirela joan erabakia hartuta, negoziatzeko borondatearekin baizik: "Ez nintzateke denbora galtzera joango, are gutxiago irainak jasotzera", amaitu zuen.

"Galdeketa baieztatu egingo da sinadurena"

Bergara Garbiak uste du "armarik egokiena" dela gehiengo atez atekoaren kontra dela erakusteko

"M.B. | BERGARA

Bergara Garbiako kideek "alkateak maskara kendu" duela uste dute plataformak berak batutako sinaduren harira alkateak aurre-

ko astean esandakoei erreferentzia eginda.

"Bere proiektuaren kontrako 4.691 sinadurak, gainetik nola

kendu ez dakien arlosa baten modukoak dira eta amarruak erabiltzen ditu justifika ezina justifikatzeko", diote erredakzio-ria bidalitako oharrean.

Plataformako kideen esanetan, "alkateak urte eta erdira esan du sinadurak ez zirela errealak. Ez dio axola notario-ziurtagiria egotea, ezta herritarren gehiengoak ere zaborra kalean, kanpoan, zikin eta usain txarrarekin nahi ez izatea". Horrekin batera, atez atekoa "askoz garestiagoa" dela ere badiote: "Gastu korrontea

hirukoiztu egingo da, atez atekoa inposatu duten herrietan gertatzen ari den moduan".

"Erreferenduma egin"

Sinadura kopuruak kezka eraginez gero, "hainbestetan eskatutako erreferenduma" egiteko ere proposatzen diote eta zeren beldur den ere galdetzen diote, baina gehitzen dute: "Zuk ez diozu beldurrik erreferendumari, emaitzari baizik, badakizulako 4.691 sinadurena baieztatu egingo dela emaitza horretan".

Horrekin guztiarekin batera honakoa ere gehitzen dute: "Herri galdeketa guk egingo dugu, azaroaren 9an eta 10ean, eta armarik egokiena izango da Bergarako zein Bergararik kanpoko iritzi publiko guztiari erakusteko herritarren gehiengoak ez duela partekatzen egiten ari zaretena".

Eta amaitzeko, hauxe diote: "Kasurik egingo ez duten arren, gehiengo horrek legitimatu egingo ditu ondoren etor daitezkeen euren diktaduraren kontrako ekintzak".



Zero Zaborren agerraldia, dozenaka herritar atzean dituztela. | I.E.

Zero Zaborrek atez atekorako ontziak jasotzeko eskatu du

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Euren babesa agertzera hurbidutako herritar ugarirekin batera egin zuen martitzenean agerraldia Bergara Zero Zabor taldeak. Bere garaian aurkeztutako Berdegara manifestuaren aldeko apustua egin zuen berriro eta dagokien egunean atez atekorako edukiontzia jasotzeko eskatu zien bergararrei.

"Bergara berdearen" aldeko apustua egin eta "guk ondo egingo dugu: hondakin gutxiago sortu, birziklatu eta berreskuzatu", zehaztu zuen.

Taldea atez ateko sistemaren aldekoa dela berretsi zuten, baina "sistema baino gehiago, helburuak eta herritarren iritzia" direla garrantzitsuak argitu zuen. "Horregatik, 700 herritarrek Bergaran inoiz egindako parte-hartze prozesu handiaren

erabakitakoa gure egiten dugu. Hau da, sistema mistoan eta herritarren ahaleginean konfiantza dugu", adierazi zuten.

Bergara Garbia plataformak azaroaren 9rako eta 10erako deitu duen herri galdeketa abstenitzeko eskatu zuen Zero Zaborrek, "Plataformak eskatzen duen bosgarren edukiontzia ez du birziklatzeko balio" adierazita. "Errauskailua horrekin batera dator", gaineratu zuten. Galdeketa atzean "helburu partidistak" daudela esanez amaitu zuten agerraldia.

Edukiontzia

Agerraldiaren egun berean hasi ziren atez atekorako edukiontzia banatzen. Herritar bakoitzak hiru edukiontzi izango ditu: bi organikoa jasotzeko eta bat errefusandako.

OHARRAK

EQUO-REN BERBALDIA

Zaborrarekin ez da jolasten izenburupean egingo du astelehenean, hilak 4, Jose Ramon Becerrak, 19:00etan, kultura etxean, Equok gonbidatuta.

1933KOEN BAZKARIA

Azaroaren 17an egingo dute, Azpeitxin. 12:00etan meza izango dute Santa Marinar eta bazkaria 14:00etan izango da. Izena emateko 6 euro aurreratutako behar dira Intxortan.

1953KOEN AFARIA

Azaroaren 16an izango da, Tartufon. Afaria 21:00etan izango da eta 23:30ean, dantzaldia. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da, Tartufon 15 euro aurreratuta edo 690 92 18 49 (Juan Antonio) zenbakian. Autobusa abiatuko da 20:30ean Fraisko zuritik eta 01:30ean jaitsiko da.

1942KOEN BAZKARIA

1963ko kintoek hilaren 23an egingo dute urteroko bazkaria, 14:30ean, Azpeitxin. Ohi bezala, bazkaldu aurretik talde argaz-

kia egingo dute. Izena emateko 20 euro aurreratutako behar dira, Laboral Kutxan, azaroaren 20a baino lehen, kontu honetan: 30350009130091144713.

1978KOEN BAZKARIA

Zumelagan egingo dute, azaroaren 16an. 13:00etarako egin dute hitzordua, Bule. 15 euro aurreratutako behar dira, la Caixan, hilaren 13a aurretik, kontu honetan: 21002414110100288642.

1944KOEN BAZKARIA

Azaroaren 9an egingo dute, 69. urtemuga ospatzeko. Izenematea azaroaren 2an amaituko da telefono zenbaki hauetara deituta: 943 76 21 86 (Ana Mari Martinez), 943 76 10 32 (Florita Txintxurreta) eta 943 76 23 70 (Sanchez ileapaindegia). Ariznoan batuko dira 13:00etan eta bazkaria 14:30ean izango da.

'BERGARA KOLORETAN'

Bergara koloretan kaleko artelanen gaineko hurrengo bisita gidatua azaroaren 24an izango da. Izen-ematea zabalik dago.

EH Bilduk herri galdeketa parte ez hartzeko dei egin die herritarrei

EAJko buruei "ardura politiko minimoa izatea" ere eskatu diete

I.G./M.B. | BERGARA

"Hondakinaren trataerari dagokionez laster Bergara Europako herri aurreratuen pare" jarriko dela eta, pozik azaldu da asteon EH Bildu: "Europako araudia betez Katalunian, Italian, Austrian egiten duten bezala Bergara ere bere hondakinak bereizi eta birziklatzen dituen herria izango da, abian jarriko den sistema mistoaren bitartez", esan zuten astelehenean egindako agerraldian.

Bilketa selektiboa "normala eta naturala" izan beharko litzatekeela uste dute, "munduko hainbat lekutan den bezala"; hala ere, "urrats hori normala izan ez dadin Bergaran gatzuek bere eskutian dagoen guztia" egiten dutela ere uste dute: "Arduradun politiko batzuk erraiak uzten ari dira bergararron arteko bizikidetzaren apurtzeko. Arduragabezia handiz alkate eta alkate ohia iraindu dituzte: faxista, totalitario, burdinazko dama, inposatzaile... Hau al da herritarren aurrean arduradun politikoei eman behar duten eredu?", galdetu zuen Ibai Redondok. Eta horrekin batera, "EAJko buru diren Aintzane Oiarbideri eta Victoriano Gallastegiri ardura politiko minimoa izatea" eskatu zien: "Utz ditzatela gezur, manipulazio eta irainak. Joka dezatela zintzo eta lasai".

Era berean, herritarrei "EAJren buruen probakzioetan ez erortzeko dei" egiten zieten, "birziklatzea poztasunerako arrazoia" delako, "ez konfrontaziorako".

"Malgutasuna zero" izan dute

EH Bilduko kideen esanetan, Bergaran EAJko buruek duten jarrerak eta beste herri batzuetan izaten ari direnak ez du inolako zerikusirik: "Hainbat herritan, Zumaian eta Azpeitian

kasu, akordio ereduak lortu dituzte EH Bilduk eta EAJk. Guk ere publikoki eta negoziazio mahaian behin eta berriz jarri ditugu akordio hauek: derrigorrezko bilketa selektiboa eta pertsonalizatua oinarrituak; helburu zehatzekin, %70-80ko birziklapen tasak; eta denbora tarte batean proba egitea. Baldintza horiek betetzen dituen edozein sistema praktikan jartzeko prest izan gara", adierazi zuten Justina Elexpuru zinegotzi ohiak. Horren aurrean, baina, "ezetzaren frontea izan dugu aurrean zoritxarrez, malgutasuna zero", esan zuten.

Udala, berriz, "malgutasunaren eta baietzaren inguruan adostasunak" lortzen saiatu dela azpimarratu zuen. Eta gehitu zuen: "Udalak martxan jarriko duen sistema ez da gehien atsegin zuena izango, ez da atez ateko klasikoa, herritarrekin parte-hartze prozesuan adostutako sistema mistoa baizik".

Herri galdeketa ez

EAJk eta PSE-EEK "herri galdeketa konfrontaziorako" erabili nahi dutela ere azpimarratu zuten,

eta gehitu zuten "planteatzen duten herri galdeketa 5. edukiontzia alderantzizkoa" egiten dutela, "eta horrek ez du arazoak konpontzeko balio, 5. kontenedoreak ez du birziklatzeko balio", esan zuten, eta Aretxabaleta jarri zuten adibide moduan: "Bergaran lau edukiontzirekin %26 birziklatzen ari gara, Aretxabaletan bost edukiontzirekin %27".

Herri galdeketa parte hartuko ez dutela ere esan zuten eta herritarrei dei egin diete parte ez hartzeko, "birziklatzea ez delako eskubidea, betebeharra baizik.

Eskaria antolatzaileei

Hori horrela, bi gauza eskatu zizkieten EH Bilduko ordezkariak galdeketa antolatzaileei: "Bate-tik, herri galdeketa modu demokratikoan antola dezatela: bergarar bat, bozka bat; bestetik, izan daitezela kontsekuenteak beraien ideiekin eta Gipuzkoan errauskailua egin behar bada Bergaran egitea eska dezatela. Asumi dezatela 5. edukiontzia ez dituela emaitzak ematen eta errauskailua behar duela".



EH Bilduko ordezkariak asteleheneko bilkuran. | MONIKA BELASTEGI

Irteera San Xosepe elkartearekin Lizarrara

Azaroaren 14an, datorren egunean, irteera egingo dute San Xosepe elkartearen erretiratuek Nafarroara, Lizarrara, hain zuzen ere. Bazkari eta guzti egingo dute irteera eta Iratxe jatetxean bazkalduko dute.

Goizean goiz, 08:30ean, abiatuko dira Ibargaraiko autobus geltoki nagusitik eta irteeraren prezioa 35 euro izango da.

San Xosepeko zuzendaritza jakinarazi dutenez, dagoeneko zabalik dago izen-ematea, hilaren 29a ezker. Interesatuak San Xosepe elkartearen bulegora jo behar dute izena emateko.

Domekan izango dira Kantari ikuskizunaren entseguak Zabalotegin

Dagoeneko abian da Goiena Komunikazio Taldearen Kantari karaoke ikuskizunaren laugarren edizioa eta domekan, azaroaren 3an, iritsiko da Bergarara, Zabalotegi aretora.

Hain zuzen ere, entsegu eguna izango da domekakoa, eta etxean ikasitakoa errepasatuko dute bertan herriko 8 eta 12 urte bitarteko 130 neska-mutikok. Domekako entsegu egunaren helburua da gaztetxoko Zabalotegi agertokia ezagutzera, grabazio egunean lasaiago eta gusturako aritzeko. Saioen grabazioei dagoeneko, azaroaren 9an sei saio grabatuko dira eta Bergarako gazteekin batera Elgeta eta Antzuolako arituko dira.

Disko festa zapatuan Zabalotegin Amaia Txintxurretarekin

Zapatuan DJ jaialdia izango da Zabalotegi aretoan, 18:30etik 21:30era, Amaia Txintxurretak gidatuta. Askotariko musika jarriko du Oñatiko disko jartzaileak, 12 eta 16 urte arteko gazteok entzun eta dantzatu ahal izango dituzten abestiak, hain zuzen ere. "Beti eurek gogokoan dituztenak", esan du Amaia Txintxurretak. Izan ere, gazteok proposamenak jasotzen dituzte saioetan, eta gero, horien arabera jaialdiak prestatzen ditu. Doinu dantzagarriak entzun ahal izango dira eta seguru oraino ere oholtzara igoko direla gazteok.

Lan eta formazio arloko informazioa emateko prest

Aretxabaletako Lanbide Eskolak Bizikasi programa hartuko du bere baitan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aretxabaletako Lanbide Eskolak lan eta formazio orientazio zerbitzua berreskuratuko du aurten, urte eta erdiren ostean. Martitzenean eman zuten horren berri, eta Ana Bolinaga alkateak honela azaldu zuen: "Formazioa eta enplegua sustatzea oso garrantzitsua da, eta baita horretan ari garen eragile sozialen arteko elkarlana ere. Hori guztia baliabide ezberdinen bidez kalitatezko eskaintza eman ahal izateko eta enpleguari aurre egiteko".

Bolinagarekin batera prentsaurrekoan izan ziren Lanbide Eskolako zuzendari Rikardo Lamadrid, Aretxabaletako Udaleko Enplegu teknikari Nahia Agirre, Bergarako Bizikasiko Miren Errasti eta Aretxabaletan orientatzaile eta Bizikasiko bitartekari izango den Nuria Davila.

Astelehenetik egubakoitzera

Lamadriderik azaldu zuen orain arte Bergaran zegoela Debagoieneko Bizikasiko programa, eta aurrerantzean Aretxabaletan ere egongo del: "Eta bi herrien artean kudeatuko da zerbitzua". Aretxabaletan astelehenetik eguenetara 09:00etatik 13:30era eta 14:30etik 18:30era emango dute zerbitzua eta egubakoitzetan, goizez.

Enplegu Saitetik ere bai

Bestalde, Udaleko Enplegu teknikari Nahia Agirrek gogora ekarri zuen Udaletik ere orientazio zerbitzua ematen dela. Besteak beste, autoenplegua sustatzen dihardute. "Dirulaguntzak daude, baina negozio berriak ipintzeko lokalak uzterik ote dugun galdetzen dute askok eta gaia lantzen ari garela adierazi gura genuke".



Lamadrid, Davila, Errasti, Agirre eta Bolinaga prentsaurrekoan. | Z.V.D.M.

NURIA DAVILA | BIZIKASIKO BITARTEKARIA

"Lan arloko orientazioa eskainiko diegu langabeei eta lana dutenei"

Nuria Davilak egingo ditu Lanbide Eskolan orientazio eta Bizikasiko bitartekaritza lanak.

Zein da Bizikasiren helburua?

Gure helburua bizi osoan zeharreko ikaskuntza sustatzea, garapen pertsonala bultzatzea, gizarteratzen laguntzea, eskualde mailan formazio ekintzak garatzea eta herritarren parte hartze aktiboa bultzatzea da.

Beraz, ze zerbitzu eskaintzen duzue?

Gure xedea lortzeko, lan arloko orientazioa eskaintzen dugu, banakako eta taldekako ekintzak eskainita. Izan ere, Bizikasiren misioa bakoitzaren behar eta asmoetara egokituz pertsonen beharrezkoa duten formazioa aukeratzeko orientatzea eta laguntzea dela esan dezakegu.



Z.V.D.M.

Nork jo dezake zuregana?

Oro har, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Leintz Gatzagako, Aramaioko eta Arrasateko jendea etor daiteke, lan barik daudenak, baina baita lana daukatenak ere. Azken horiei dagokienez, normalean, euren lanpostuan hobetu nahi izaten dute.

Gabilondoren 'Amaren eskuak' filma ikusgai asteburuan Zاراian

'Gamazada, 1893-1894 etengabeko konkista' aurkeztuko dute, besteak beste, azaroan

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Azaroan itzuliko dira zine emanaldiak Zaraian. Donostiako Zinemaldian estreinatua zuen Mireia Gabilondok *Amaren eskuak* azken lana, eta hori eskainiko dute asteburuan. Azaroaren 1ean eta 2an 22:00etan hasiko da emanaldia; domekan 19:30ean eta astelehenean, ostera, 16:00etan. Baina gainera, haurrentzako *Los Pitufos 2* ere emango dute, zapatuan eta domekan, 17:00etan hasita.

Bestelako filmak ere eskainiko dituzte azaroan. Esaterako, eguenetan, zineklubaren barruan, *Trance*, *Paraíso amor*, *La piedra de la Paciencia* eta *Hipnotiztaileak* eskainiko dituzte. Zine komertzialaren barruan, *Ahora*

me ves, *Capitán Phillips*, *La mejor oferta* eta *El Mayordomo*.

Erakusketa, hitzaldiak...

Euskal Herriko mapak. *Euskal Herria kartografia eta testigantza historikoetan* erakusketa irekiko dute Zaraian astelehenean, hilak 4.

Eta azarorako berbaldiak ere antolatu dituzte: GKEen esperientzia trukaketaz egingo dute berba hilaren 7an; *Gamazada* liburua aurkeztuko dute hilaren 18an; eta gazteen artean indarkeria sexista nola prebenitu hartuko dute ahotan azaroaren 26an.

Hika taldearen *Hitzak* antzez-lana ikusteko aukera ere egongo da, azaroaren 25ean.



Amaren eskuak filmaren une bat. | AMAREN ESKUAK

Bihar Domu Santu eguna dela-eta, egunotako mezen ordutegia aldatu egin dutela jakinarazi dute

Aretxabaletako parrokiatik bidalitako oharren arabera, bihar, azaroak 1, Domu Santu eguna izanik, gaur, eguna, meza esango dute parrokiari, 19:00etan hasita. Biharko mezen ordutegia, ostera, domeketako bera izango da: monasterioan 09:00etan eta parrokiari 11:30ean. Zapatuan, aldiz, hildakoen aldeko meza esango dute, 11:30ean hasita, parrokiari.

'Jar gaitzen' ekimeneko azken bi saioak egingo dituzte azaroaren 5ean eta 7an Arkupen (18:00)

Jar gaitzen egitasmoaren azken bi bilerak egingo dituzte datuz martitzenean eta eguenean. Aurreneko bileran, kultura, herri bizitza eta kirol arloak landuko dituzte; eta euskara, hezkuntza eta gazteria, berriz, eguenean. Bi bilerak Arkupeko bigarren solairuan izango dira, 18:00etan hasita. Gaikako faseak amaituko dituzte horrela, eta, horren ondoren, azaroaren 28an bateratze saioa egingo dute, egutegiari jarraituz.

Gobernuz kanpoko erakundeen lana ezagutzeko mahai ingurua antolatu dute azaroaren 7rako

Azkenaldian zein proiektuekin dabilen azalduko dute azaroaren 7an, eguenean, Debagoieneko gobernuz kanpoko sei erakundek. Arkupen izango da, 18:00etan hasita, eta, hain zuzen ere, Hiruax, Felix-Baltistan, Amsogra, Oscar Romero, Ndank Ndank eta MSH eseriko dira mahaiaren bueltan. Izan ere, Aretxabaletako Udalak dirulaguntza eman die elkarte horiei proiektuak aurrera eramateko.

Jaiki elkarteak eta Kuku Mikuk elkarlanean antolatu dute aurtengo Dantza Familiar ekimena

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Duela bi urte pasatxo hasi zen Aretxabaletako Jaiki elkarteak Dantza Familiar ekimena antolatzen. Udazken honetan ere egingo dute, eta azaroaren 10ean izango da lehenengo saioa. Hala, hamabostean behin domeketan elkartzeko asmoa daukate (16:30-17:30), eta "jolas, dantza eta adierazpena lantzeko gune bat" sortuko dute modu horretan.

Kuku Mikurekin batera

Jaikiko Maier Etxebarriak adierazi duenez, Kuku Mikuk elkartarekin batera antolatu

dute aurten lehenengoz Dantza Familiar: "Izan ere, elkarte honen proiektuarekin oso lotuta dago ekimen hau eta horregatik batu gara elkarlanean". Kuku Mikuren egoitzan elkartuko dira saioak egiteko. "Bakarkako edo taldekako ekintza txiki eta errepikatu ezinak konpartitzeko asmoz" elkartuko direla eman du aditza Etxebarriak.

Carla Fernandezek gidaritzapean arituko dira 2 eta 6 urte arteko neska-mutilak eta haien gurasoak, eta jolasek, mugimenduek eta irudimenak parte hartzaileen sorkuntza gaitasuna



Familiar dantza egiten. | JAIKI ELKARTEA

estimulatzen lagunduko dutela eman dute aditza antolatzaileek. Izen-ematea jaikielkartera@yahoo.es edo 943 53 43 96 telefonoan egin daiteke; 3 euro ordaindu beharko dira pertsonako eta saioko.



Martitzeneko ezohiko bilkura. | ANE ETXEBERRIA

Zergak izoztu egingo dituzte, hondakinena eta ibilgailuena izan ezik

Familia bakoitzak sei euro gehiago ordaindu beharko ditu zergen igoserarekin

ANE ETXEBERRIA | ESKORIATZA

Martitzenean eginiko ezohiko bilkuran, hainbat puntu aztertu eta onartu zituzten; besteak beste, datorren urteko tarifen izozte partziala eta herriko komertzioa sustatzeko ekimen bat.

Lehenik eta behin, goizean, herriko gazteek eginiko osoko bilkura simulatuaren berri eman zuen alkateak. Horretaz gain, Fagorreko langileei elkartasuna adierazi zien Hercek. Gorka Azpitarte presoaren egoeraren berri ere eman zuten bilkurako lehenengo minutuetan. Han izan ziren presoaren lagunak, eta mozio bat aurkeztu zuten; bilkurak onartu egin zuen.

Udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantza aldatzeko proposamena egin zuen udal taldeak. Hala, beste figura bat gehitu nahi da ordenantza horretan; alokairuaren bidez etxebizitza erosteko aukera bermatu nahi da. Formula hori bidegarria dela ikusi da beste herri batzuetan, eta Eskoriatzan ere bide hori zabaldu nahi dute. Aho batez onartu zuten aldaketa.

Urbanizazio obrak exekutatzeko berme bezala Aitzorrotz SLk jarritako abala kitatzeko baimena ere onartu zuten. Kirolari dagokionez, beste zerbitzu bat emateko kontratazio baten inguruko gaia jorratu zen, eta eztabaida txiki bat piztu zen bilkuran; izan ere, Igor Ezpeleta Kirol zinegotziak aditzera eman zuen teknikari berri baten beharra dagoela, antolatuko diren ekintzak, sorospen zerbitzua, pilotalekuaren irekiera eta itxiera kontrolatzeko eta beste hainbat lan egiteko. Arlo hori "putzu beltza" dela esan zuten oposizioek eta profil horren beharra zalantzan jarri zuten gehienek.

Tarifak eta dirulaguntzak

Datorren urteari begira tarifak onartu behar direla-eta, 2013ko tipoa eta tarifak mantentzea proposatu zen udalbatzan. Zerga gehienak izozteko proposamena aztertu zen, bi salbuespenekin, hondakinena eta ibilgailuen gaineko zergak. Hondakinena zerga %3 igoko da eta ibilgailuen gainekoa, %2. Horrek guztiak fami-

lia bakoitzak 6 euro gehiago ordaindu beharra adierazten du. Ezker Batua eta PSE abstenitu egin ziren; Merinoren ustez, tarifa guztiak izoztu beharko lirake. PSEko zinegotzi Canterok ere ordenatza hori positibotzat hartu zuen, baina hondakinena eta ibilgailuetan igoera gertatzearekin ez zegoen ados. EAJ kontra azaldu zen; hala ere, onartua geratu zen ordenantza fiskala.

Horrekin batera, tokiko garena eta herriko komertzioa bultzatzeko proposamen bitxi bat aurkeztu zuten bilkuran; Astroki bidez herriko komertzioak indarberritu eta sustatu nahi ditu Udalak. Ideia positibotzat jo zuten gehienek, "ekonomia sustatze aldera mugimenduak behar baitira herrian". Halaber, udal talde sozialistak ospitalean eta anbulatorioan ematen diren botiken koordainketa berria gaitzesteko mozioa aho batez onartu zen. Azkenik, azaroaren 25ean Indarkeriaren Aurkako Eguna izanik, mozioa onartu eta antolatuko diren ekintzen berri eman zuten ezohiko bilkuran.

Hondakinak gaika batzeko ontziak banatuta

Herritarrek eta komertzioek jaso dituzte ontziak

A.E. | ESKORIATZA

Astelehenean eta martitzenean, goizez zein arratsalde, Ibarraundi museora joan ziren herritarrek ontziak jasotzera. Bakoitzak organikoa batzeko bi edukiontzi, errefusarentzako bat eta papera eta kartoia biltzeko beste bat jaso zituen. Halaber, zabor organikoa botatzeko edukiontzietako giltza ere jaso zuten herritarrek, baita hiztegi bat ere, zalantzak iza-

tektan erantzuna topatzeko. Komertzioek, aldiz, eguaztenean jaso zituzten ontziak. Informazioaileak pozik azaldu ziren, ez baitzen jende pilaketarik egon ontziak jasotzeko orduan. Bilketa sistema hori azaroaren 4an jarriko dute martxan, proba aitzindari moduan, herriko iparraldean dauden etxebizitzetan. Hiru hilabetez proba egin, eta ondoren hobekuntzak proposatuko dituzte.

Asteburu luze honetan egongo da zer egin

'Herrixa dantzan' izango da domekan

A.E. | ESKORIATZA

Asteburu honi begira hainbat ekintza antolatu dituzte Gaztelekuko kideek; izan ere, egubakoitzean, *Gaba baltza* eguna ospatuko dute. Zapatuan eta domekan, beldurrezko film laburrak grabatuko dituzte. Domu Santuarekin, beldurra-ekin eta iluntasunarekin lotutako ekintzak, beraz, Gaztelekukoaren eskutik.

Areto futbola gustuko dutenek, berriz, zapatuan izango

dute zer egin. Izan ere, 18:00etan, areto futboleko Euskal Ligako partidua izango da Eskoriatzan: etxekoek Debabarrenaren aurka, eibartarren aurka jokatuko dute. Eta domekan, azkenik, gerria mugitzeko aukera izango dute herritarrek, *Herrixa dantzan* saioa izango da-eta, 18:30ean, Unibertsitateko kaperan. Hain justu, Patxi Montero ibiliko da gidari lanetan aurrean ere. Iaz, oso arrakastatsua izan zen saioa.

Euskalkien gaineko ikastaroa datorren astean hasiko da eta izena emateko epea gaur amaitzen da

"Hori egin leikedot", "Ez jaten gustauko pobria izetia" eta halako esaldiak ondo esaten eta idazten ikasteko ikastaroa antolatu du Udalak. Hamar orduko ikastaroa izango da, honako egunetan: azaroaren 9an, 16an, 23an eta 30ean. Ikastaroak goizez izango dira, 10:30etik 13:00etara. Izen emateko azken eguna gaur, egue-na, izango da. Interesa dutenek kultur etxera jo edo 943 714 688 telefonora dei dezakete. Ikastaroaren prezioa 5 euro da.



JAGOBA DOMINGO

Haurrak, parkeak zaintzearen alde

Herriko haur eta gazteak parkeak zaintzearen alde azaldu dira asteen. Izan ere, hainbat ekintza egin dituzte gai honen inguruan. Astelehenean, Luis Ezeizako eta Arizmendiko ikasleek muralak margotu eta herriko zenbait txokotan itsatsi zituzten. Halaber, herriko gazteek osoko bilkura egin zuten martitzenean, eta bertan, azken hilabeteetan herriko parkeetan izandako apurketen inguruan hausnartzeko aukera izan zuten.



ANE ETXEBERRIA



Sanjosepe kalea irekita atzo goizean. | IURE EIZAGIRRE

Amaitu dituzte Sanjosepe kaleko hormako obrak

Hilabete hasieran ekin zieten horma behin betiko egonkortzeko lanei

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Sanjosepe kaleko obrak amaitu dituzte. Asteak behar izan dira iaztik arazoak eman dituen horma behin betiko egonkortzeko baina atzo ireki ahal izan zuten kalea. Valen Moñux Udaleko aparejadoreak azaldu duenez, "lanetan ez da inolako ezustekorik izan eta aurreikusitako epean amaitu dira".

Herriko sarrerako horma betirako indartzea lortu dute burdina sartu diote-eta presiopean. Gainera, 43 buloi sartu dituzte barruko haitzeraino, horma hobeto eusteko.

Lehenengo urte amaieran egindako lanen bigarren fasea izan da oraingoa. Abenduan hormako harri bat erori zen Sanjosepe kaleko errepidera eta beste hainbat horman bertan geratu ziren zintzilik, erortzeko arriskuan. Ordukoan hormigoia sartu zuten horman, baina obra egindako geologoak berak aitortu zuten

hori urtebeterako irtenbidea zela. Bigarren fasearen amaieran Moñuxek adierazitakoaren arabera, "aurrera begira ez da obra gehiago egin beharko".

Errepidea irekita

Sanjosepeko obrek herritar zein kanpotar guztiei eragin diete aste hauetan; izan ere, lanak egin bitartean itxita egon da herriko beheko sarrera. Gutxi ez eta, Sagasti kaleko obrak ere data

berean hasi ziren. Hango sarbidea ere itxi egin zuten.

Lanak bukatuta, Sanjosepe kalea ireki dute eta nabaria da dagoeneko, bertatik baitabilta herriaren erdigunera doazen autoak eta sarrerako enpresetarako kamioiak. Honek arindu egingo du herriguneko eta kanpoaldeko zirkulazioa eta antzuolarrek ez dute derrigorrez Antiguako ermitaraino joan beharko herrian sartu ahal izateko.

Sagastiko lanak ere epe barruan doaz

Sanjosepe kaleko lanekin batera hasi ziren Sagastin biribilgunea egiten. Hesiz inguratuta egonik askorik ikusi ezin bada ere, Valen Moñux aparejadoreak jakinarazi du lan hauetan ere epeak betetzen ari direla. Herri barruko zirkulazioa ordenatzea eta Sagasti kale bukaerako bidegurutzea hobetzea du helburu obra horrek, eta, biribilguneari esker, autobusen joan-etorria murriztu egingo da herriguneari: Bergararako autobusak ez dira sartuko herrian eta Zumarragarakoak ez dira Uzarragako sarreratik ibiliko.

Tesia aurkeztuko du Ramirez de Okarizek

Uztailean Huhez in defendatu zuen kultura ondarearen transmisioa ardatz duen tesia

I.E. | ANTZUOLA

Iñigo Ramirez de Okariz Huheziko irakasleak uztailean defendatutako *Gertuko kultura ondarearen transmisioa eta hezkuntza eragileak Lehen Hezkuntzan* doktore tesia aurkeztuko du eguenean herritarren aurrean. Hitzaldia 18:30ean hasiko da Olaran etxean.

Debagoieneko ikastetxeetan kultura ondarea nola transmititzen den aztertu zuen Ramirez de Okarizek doktore tesian, eta lan horrengatik *bikain cum laude* kalifikazioa lortu zuen. Eskolekin ez ezik, museoetako, interpretazio zentroetako, udal hezkuntza batzordeetako eta turismo bulegoetako arduradunekin aritu zen lanean, hezkuntza ez formaleko eragileek kultura ondarearen transmisioan nolako eragina duten aztertze-ko ahaleginetan.

Hiru galdera

Doktore tesiak hiru galdera ditu ardatz: nola transmititzen den ikastetxeetan gertuko kultura, hezkuntza ez formaleko eragileen eragina eta hezkuntza eragileen elkarlanarekin nola hobe daitekeen gertuko kultura ondarea.

"Gure ikastetxeetan lantzen da kultura ondarea, baina ez da erraza izaten izenburu bat jartzea transmititzen den horri", adierazi du Ramirez de Okarizek tesia ematean. Askotan kultura ondarea zer den azaldu behar izan duela ere badiu.

Azterketa egitearekin batera, proposamen bat jaso du irakasleak tesian: "Ildo nagusia da nola elkarlotu hezkuntza eragile ezberdinak kultura ondarearen transmisioa lortu ahal izateko". Horren berri jasotzeko aukera eguenean.



Iñigo Ramirez de Okariz tesia defendatzen Huhez in. | HUHEZI

Azaroaren 9tik aurrera astebururo egongo da zabalik Gazte Txokoa

I.E. | ANTZUOLA

Gaztetxoek neguan elkartzeko eta gozatzeko gunea izango dute berriro azaroaren 9tik aurrera. Izan ere, orduan irekiko dute berriro Gazte Txokoa. Ohi bezala, asteburuetan egongo da zabalik, zapatuetan 17:00etatik 21:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara. DBHko 1., 2.

eta 3. mailakoek erabil dezakete zerbitzua. Lehen egunean merienda egingo dute.

Ekintza ugari

Lehen ekintza prestatu dute jada: azaroaren 24an eta abenduaren 1ean droga-menpekotasun prebentziorako tailerra egingo dute.

Kantariko entsegua izango da domekan Bergaran, Zabalotegin

Antzuolako haurrek Bergaran hartuko dute parte Goiena Komunikazio Taldearen Kantari saioan. 22 umek hartuko dute parte, sei taldetan banatuta. Etxean ikasitakoa errepasatzeko entsegua domekan egingo dute, 16:00etan, Bergarako Zabalotegi aretoan. Saioaren grabazioa azaroaren 9an izango da.

OHARRAK

BATZARRA GAZTETXEAN

Asteburu luzearen aurretik, herriko gazteek batzarra egingo dute gaur. 18:00etan hasiko da, Gaztetxean.

TXISTULARIEN KALEJIRA

Domeka goizean txistulariek emango diote egun ona herriari; izan ere, kalejira egingo dute, 10:00etan, herriko kaleetan zehar. Azaroan, berriz, domekero egingo dute.



JON UGARTEBURU

Gozatu ederra hartu dute Bardeetarako irteeran

Bardeetara mendiko bizikleta irteera egin zuten domekan Arrola mendi taldeko kideek. Duela zortzi urte lehen aldiz joan zirenean moduan, gozatu ederra hartu zuten irteeran parte hartu zuten hogei antzuolarrek. Bost orduko ibilbidea egin zuten bizikleta gainean, eta, besteak beste, urteetan transhumantzia ibili direnen omenez egindako orogarria bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten, argazkian ikusten denez.



Nardeaga kalea jendez lepo egon zen goizean zehar, Erretiratuen Eguneko azokak erakarrita. | JOSETXO ARANTZABAL

Udala: "Azoka jendetsua, gaztea eta polita izan zen"

Biomasa bidez funtzionatzen duten postuek interes handia piztu zuten

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Erretiratuen Eguneko azokak arrastoa utzi du aurten. Udaleko ordezkariak hiru arrazoi eman dituzte aurtengo azoka bereziki goraiatzeko: "Azoka jendetsua, gaztea eta polita izan zen, oso pozik gaude", esan digu Aitor Larrañaga Udaleko teknikariak.

Parte hartzea handia izan zela ukazina da; baserriko zein artisautez produktuez osatutako bertako 20 postu egon ziren eta horiekin batera bertako 18 baserriarren ganadua ikusteko aukera ere egon zen. Kanpotik 28 postu etorri ziren, azkenean. Azoka gaztea izan zela ere nabar-

mentu digu Larrañagak: "Batez besteko adina baxua izan zen. Baserriarren artean asko ziren gazteak eta hori aipatzekoa da". Horrez gain, postuak "oso politak" izan zirela ere adierazi digu Larrañagak: "Postuaren estetika gero eta gehiago zaintzen da eta hori igarri zen gurean ere".

Biomasa eta konposta

Era berean, produktuez aparte hiru postu berezi ere izan ziren, ingurumenarekin zerikusi zuzena dutenak. Batetik, biomasarekin lotutako postuek interes handia piztu zuten: "Biomasa bidez funtzionatzen duen galdara jarri zuen postuko arduradunak esan digu jende asko etorri zitzaioala galdezka". Sugaar enpresako Javier Hermosillaren arabera, merkeagoak dira biomasa bidez funtzionatzen duten galdarak: "Inbertsioa da hasieran, baina epe luzera merkeago irten da. Landa eremuetan energia iturri nagusi moduan erabiltzen dute, inongo arazo barik".

Ekosua enpresako Xabier Perez ere izan zen azokan eta haren arabera, biomasa bidezko estufaren beroa "oso goxoa" da: "Sistema hau ez da ezaguna hemen, baina Ipar Europan halakoak dira ohiko berogailuak. Oso astunak dira, 1.500 edo 2.000 kilo pisatu dezakete, eta 100 metro koadro berotzeko 12 kilo egur behar izaten da. Estufa ordubetez bakarrik dago piztuta eta 12 ordurako beroa ematen du. Izan ere, behin egur guztia erretzen denean, beroa estufa barruan mantentzen da eta pixkanaka zabaltzen da etxean zehar. Horregatik egunean behin pizten da normalean; beroa oso goxoa da. Jendearen interesa piztu du, pozik gaude". Aramaion jarri dute bat dagoeneko.

Bestalde, Larrañagaren arabera, konposta egiteko postuak ere jende asko erakarri zuen.



Balentin Ibabe. | UDALA



Maria Angeles Beitia. | UDALA

Omenaldia edadetueni

Aurten ere Udalak omenaldia egin die herriko gizonezko eta emakumezko edadetueni. 1918ko martxoaren 1ean jaiotako Maria Angeles Beitia eta urte bereko uztailearen 4an jaiotako Balentin Ibabe izan dira omenduak. Asteon pasa dira Udaleko ordezkariak bien etxetik; Beitiari lore sorta oparitu diote eta Ibaberi, berriz, txapela.

Adifi kalte-ordainen auzia berraztertzea eskatzeko, eredu bat prestatu du Udalak

J.B. | ARAMAIO

A-2620 errepidea itxita egoteak eragindako kalte-ordainen errekamazioak direla-eta, Adifek dio ez duela erantzukizunik, euriari leporatzen diote lur-jausia. Erantzun horren aurrean Udalak aholku juridikoa eskatu du, eta, Adifi auzia berraztertzea eskatzeko, Udaleko abokatuak

eredu bat prestatu du herritarrei bideratzeko. Eredu horrek lur-jausia gertatu aurreko informe geologiko bat eta osteko txostena darama atxikita. Herritarrek erantzuna jaso eta hilabeteko epea dute eredu hori Adifera bidaltzeko. Udaletxean bertan edo Udalaren webgunean egongo da eskuragarri eredu hori.

Irati Muxikaren aldeko zozketa: saria, Oletara

Erretiratuen Egunean, Irati Muxika auzipetuaren aldeko zozketa egin zen: herritarrek emandako elikagaiz osatutako produktu sorta. 695 izan zen zenbaki saritua; Oletako Amparok eraman zuen saria. Zorionak eta on egin!



ALEX MENDIKUTE

Udalak dei egin die herritarrei hilaren 9an egingo den kultura arteko tailerren parte har dezaten

Azaroaren 9rako kultura arteko tailerra antolatu du Udaleko Gazteria, Migrazioa eta Berdintasuna Sailak. Tau Fundazioko kideak etorriko dira Aramaiora, herrian jatorri askotariko herritarrek izateak dakartzan abantailen berri ematera. Gaur da izena emateko azken eguna, baina Udalak iragarri du datorren astean ere izena emateko aukera egongo dela. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da saioa, 11:00etatik 13:00etara. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Autobusa antolatu du Alaiak erretiratu elkarteak Arrasateko 'La taberna del puerto' zarzuelarako

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak azaroaren 30ean eskainiko duen *La taberna del puerto* zarzuelara joateko autobusa antolatu du Alaiak elkarteak. Autobusa eta sarrera erreserbatzeko 19 euro sartu beharko dira Alaiak elkarteak Laboral Kutxan duen kontu korronte zenbakian, azaroaren 4a baino lehen. Lau emanaldi izango dira eta autobusa antolatu dute azken saiora joateko, hots, azaroaren 30erako. Emanaldia Arrasateko Amaia antzokian izango da, 19:30ean.



BITTOR KORTABARRIA

1950. urtean jaiotakoak "ederto" ibili ziren Errioxan

1950ean jaiotako aramaiorrek irteera berezia egin zuten urriaren 19an. Errioxa aldean ibili ziren eta, besteak beste, Remelluri eta Dinastia Vivanco upeltegiak zituzten. Azken upeltegi horretan bazkaldu zuten, eta ondoren, bertako ardoaren museoa bisitatu zuten. Museoa bisitatu ostean, Haron egin zuten geldialdia eta gero Aramaiorako bidea hartu zuten. Eguna borobiltzeko, Ehiztari Txoko elkarte gastronomikoan afaldu zuten: "Ederto ibili ginen, denok umore ederrean", adierazi digute.

ELGETA

Udal zerbitzuak mantentzeko konpromisoa agertu du Udalak

Defizitarioak diren udal zerbitzuen berri eman du Oxel Erostarbe alkateak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurrekontu berriaren lehentasunetako bat udal zerbitzuak mantentzea izango dela esan zuen Oxel Erostarbe alkateak aurrekontuaren zirriborroa aurkezte-rakoan. Zerbitzu defizitarioen inguruko informazioa ere eskaini zuen Erostarbek. Zerbitzu sozialak, kultura etxea, haur eta nerabeendako zerbitzuak, erretiratuendako zerbitzuak eta kirol zerbitzuak nabarmendu zituen. Bost kapitulu horietan Udalak 121.056 euro inguruko defizita aurreikusten du 2013an.

ZERBITZU DEFIZITARIOAK ELGETAN

	ERABILTZAILAEK	GASTUAK (EUROTAN)	SARRERAK (EUROTAN)	DEFIZITA (EUROTAN)
Zerbitzu sozialak	20	262.800 €	222.500 €	- 40.300 €
Kultura etxea	42 astean	28.423 €	0 €	- 28.423 €
Haur eta nerabeendako zerbitzuak	84	38.760 €	15.010 €	- 23.650 €
Erretiratuendako zerbitzuak	200	15.567 €	0 €	- 15.567 €
Kirol zerbitzuak	70	43.028 €	29.912 €	- 13.116 €

Zaborrontzi berriak kalean

Kalean ere hondakinak sailtzeko aukera izango dute aurrerantzean Elgetarrek. Udala eguaztenean hasi zen zaborrontzi berriak ipintzen. Lau gune ezberdinetan ipiniko dituzte; gune bakoitzean koloretako lau zaborrontzi.



Hainbat ekintza gaur, Arimen Gauda dela eta

L.Z. | ELGETA

Bat baino gehiago mozorro-tuta irtengo da gaur arratsaldean kalera. Arimen Gauda da, eta ospakizun horren bueltan hainbat ekintza iragarri dituzte, batez ere, seigarren mailako neska-mutikoek.

17:00etarako umeendako jolasak eta eskulanak iragarri dituzte kiroldegiko gimnasioan. Antzezlanaren ere egingo dute, 19:00etan. Ondoren, hilerri ingurura egingo den irteera batean parte hartzea gonbidatu ditu neska-mutikoak. Maala guraso elkarteak.

PILOTA ETA FRONTENIS TXAPELKETA

Pilota txapelketa bi norgehiagoka

Asteburu honetan pilota txapelketako bi partidu daude iragarrita. Frontenis txapelketan, berriz, jokatu dira finalerdiak eta bi finalei eguna ipintzea falta da.

PILOTA TXAPELKETA KO AZKEN EMAITZAK

Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi	22-09
Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal	19-22
Iñaki Olaortua-Oskar Askasibar / Eneko Ormaetxea-Mikel Ormaetxea	22-14

PILOTA TXAPELKETA BIHAR, BARIKUA, 11:00ETAN

Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi

PILOTA TXAPELKETA DOMEKAN, HILAK 3, 11:00ETAN

Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua / Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal

FRONTENIS TXAPELKETA KO BIKOTE FINALISTAK

Haritz Gallastegi-Enrike Elkorro
Andoni Elortza-Eneko Maguregi
Rebeka Ubera-Xabier Ubera
Idoia Serna-Asier Osoro

Lan orientazio zerbitzua herrian hiru astean behin

L.Z. | ELGETA

Debagoieneko Mankomunitateak enplegu orientazio zerbitzu ibiltaria jarri du martxan. Elgetan, hiru astean behin izango da orientatzailea udaletxean. Lehenengo saioa azaroaren 7an, eguena, egingo dute, goizez. Aurrez hartu behar da txanda gizarte zerbitzuetara deituta (943 76 80 22) edo gizarte@elgeta.net posta elektronikora mezua bidalita. Zerbitzuan eskainiko dituzte, besteak beste, enplegu-informazioa, aholkularitza eta trebakuntza, eta curriculum-a zein lan elkarrizketak prestatzeko laguntza.

NIRE USTEZ



BEATRIZ ZABALONDO

Norberak ere aurrera

Gure herriak eman ditu eta oraindik baditu pentsalari handiak. Ez dugu haien berri nahikorik, behar bada. Eskolan gutxi aipatu zaigu haien pentsamendua eta lana. Baina on egiten du haiengana jotzeak beti, eta une larrietan bereziki. Egun kezkatzen gaituzten eta katramilatuta gauzkatzen hainbat kontuez arituak baitira gu baino lehenago.

Karlos Santamaria dator kit gogora, besteak beste. Jakin-eko taldeak aztertu eta bildu du haren obra mardula. Joxe Azurmendiren saikeran irakurri dugu nola begiratzen dion Santamariak bere garaiko krisiari —eta, zinez, krisi beteko garaian lan egin zuen!

Krisia erabaki beharreko zertzat zeukan Santamariak: berez, ez ontzat, ez txartzat. Baina mugitzera behartzen gaituena. Azurmendik azaltzen digunez, ezin dena da ezer egin gabe gelditu, begiak itxi eta egonean egon. Eta autore honek segitzen du: "Krisian gaudela ulertzeak erakusten du ulertzen dugula aldakuntza gaudela. Krisiak egoera bat 'erabakitzen du', egoera batetik beste batera behartuz edo bultzatuz, uste zaharrak apurtuz eta problema berriak planteatuz. Beraz, krisiak aldakuntza bat seinatzen du".

Errealitatearen gogorra ukatu gabe, aurrera egiteko eta etorkizuna eraikitze bidean jartzea tokatzen da orain. Orain ere bai.

"Ezin dena da ezer egin gabe gelditu (...) eta egonean egon"

Azarotik aurrera ordutegi berria Udal Liburutegian

L.Z. | ELGETA

Astelehenetik eguenera bitartean ez da aldaketarik egongo. Barikutan, ordea, liburutegia 14:30etik 17:00etara egongo da zabalik. Geaxi Ezpeletak azaldu duenez, arratsaldeetan joan ezin direnei ere liburutegia erabiltzeko aukera ematea da helburua, eta eskaera egon da. Gogoratu behar da, bestalde, Udalak liburutegirako logo lehiaketa deitu duela. Azaroaren 30era arte aurkez daitezke lanak. Oinarriak liburutegiaren blogean daude ikusgai.

OHARRAK

MEDIANOCHE

Eibarko taldeak emanaldia egingo du zapatuan 22:30ean kafe antzokian. Sarrera 12 euro da, bazkideendako 10 euro. —ikus 26. orria.

DIRULAGUNTZAK

Azaroaren 5ean amaitzen da ikasketa ez unibertsitariotarako dirulaguntzak eskatzeko epea, eskolan.

LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako txapelduna, 103 urterekin

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA

Duela 103 urte jaio zen Narciso Beitia Elkorobarrutia gatzagarra —martitzenean bete zituen urteak—, San Narciso egunean: santuarengandik dator kio izena. Gironako Narciso martiria Ausburgo eta Gironako patroia da eta urriaren 29a zen haren eguna.

Eta urtebetetze egunean joan zitzaion, besteak beste, Eugenio Otsoa Gatzagako alkatea, oparitxo bereziarekin Astaisolo base-rirra: Jakion kontserben otarre bat eta alkateak berak egindako bertso bat (*Goiena.net*-en dago).

103 urte ez dira egunero betetzen, eta duela urte batzuetatik

hona gatzagar zaharrena da Narciso Beitia. Urte asko izan arren, ez du itxura txarra Beitia, umoretsu eta osasuntsu gogoratzen baititu gatzaroko garaiak. Soldadutza eta gerra garaian makina bat lekutan ibilitakoa da, baina maiteen duen lekua, duda barik, Leintz Gatzaga da.

Matilde Arresek, 98 urte

Emakumeetan 98 urteko Matilde Arrese da nagusiena. Joan den hilabetean saria jaso zuten biek, edadetuak izateagatik.



Narciso Beitia eta Eugenio Otsoa, martitzenean, Astaisolon. | ANDER LARRAÑAGA



Dennis Urubko mendizaleak Alex Txikon izango du ondoan datorren eguaztenean. | SPORTVICIOS.COM

MENDIA

Oñatiko Mendi Asteak Dennis Urubko ekarriko du

Munduko goi-mendizale onenetakoa azaroaren 6an izango da Oñatin

XABIER URZELAI | ARRASATE

Askok Iñaki Otxoa de Olzaren omenez egindako *Pura vida* filmean ezagutu genuen Dennis Urubko goi-mendizalea. Kazajistangoa izan zen Otxoa de Olza erreskatatzeko lanetan buru-belarri ibili zen lagunetako bat, eta halaxe jaso zuen filmak. Urubko, baina, askoz lehenagotik zen ezaguna, goi-mendizaleen artean munduko onenetakoa delako The North Face taldeko kidea.

Urubkok zortzimilako guztiak ditu eginda, eta euretako bi neguan igo zituen, Gasherbrum II (2001) eta Makalu (2009). Itzultzaile lanetan, ostera, Alex Txikon laguna izango du.

Eskalada, base jauzia, raidak

Ondorengo asteetan izango diren ikus-entzutekoetan eskalada eta raid gaiak nabarmenduko dituz-

te. Azaroaren 19an Carlos Suarez eskalatazalea izango da Oñatin, baina aspaldian base jauziak egiten dabil, eta gai horri helduko dio. Eskaladaz jardungo dute, esaterako, Egoitz Zubizarretak

Patagoniara egindako bidaian eta Iker Arroitauregik.

Uxue Frailek eta Saul Abriek, berriz, raidak gerturatuko dituzte (azaroak 26), euren esperientzia kontatuta.

MENDI ASTEKO EGITARUA

Azaroak 6: Dennis Urubko

Kazajistango mendizalea.

Azaroak 19: Carlos Suarez

Base jauzien gainean jardungo du.

Azaroak 20: Egoitz Zubizarreta

Patagonian, Cerro Torre eta Poincenot.

Azaroak 21: Zine Kluba, 'Autana'

Amazoniako abenturaren filma.

Azaroak 22: 'Baltistan garatzen'

Felix Baltistan Fundazioaren lana.

Azaroak 26: 'Raid-aren abentura'

Uxue Fraile eta Saul Abril.

Azaroak 27: 'Harri Aroa'

Iker Arroitauregi, boulderraz.

Azaroak 29: 'Lehoinabarraren az.'

Xabier Ormazabalaren omenez

Oharra: Emanaldi guztiak Oñatiko Kultura Etxean izango dira, 19:30ean. Zine kluba izango da salbuespena, 20:00etan.

MOTOR LASTERKETAK

Xabi Abasolo Espainiako Txapelketan 'doblete'-a egiteko asmoz doa asteburuan Bartzelonara

X.U. | ARRASATE

Motor gainean denboraldi ezin hobe egiteko aukera ederra du asteburuan Xabi Abasolok, eta azken hitzordurako prestatzen Sherco etxeko tailer ofizialean harrapatu dugu Arrasatekoa, Elgoibarren, motorrari azken ukituak egiten: "Motorra ederki doa. Berria estreinatu berri dut, eta oso gustura nabil". Emaitzetan ere igartzen da hori, azken hitzorduetan egindako lanari esker Abasolok liderra harrapatu du-eta, Borja Nieto.

Esan bezala, urtea borobiltzeko aukera aparta du Abasolok

Bartzelonan. Pilotu arrasatearra Espainiako cross country txapeldun izan da, eta orain, enduro txapeldun bilaka daiteke, zapatuan eta domekan egingo duten lasterketa bikoitzean Nieto atzean uzten badu.

Hala, enduro egutegiko azken hitzorduak ezin du emozio handiagoa izan, Nieto eta Abasolo puntu kopuru berarekin daude-eta (150 puntu). Urtean zehar korritutako lasterketak -bederatz- ez dira nahikoa izan fabrito bat narbarmentzeko: "Ni naiz atzetik aurrera datorrena, eta baliteke Nietok presio handiagoa



Xabi Abasolo. | GOIENA

izatea. Baina KTM ofizialeko pilotu ohia da, esperientzia handikoa, eta nirea lehenengo urtea da. Ea lan txukuna egiten dugun, baina bigarren geratzen banaiz ere oso pozik amaituko dut".

FUTBOLA

Bi puntura dauden Aloñaren eta Bergararen arteko derbia domekan

Aretxabaletak ere etxean jokatuko du; Ibarraoek nahitaz erreakzionatu behar dute

XABIER URZELAI | ARRASATE

Domekan Aloña Mendiren eta Bergararen arteko derbia poltsikora eramaten duenak pauso polita egingo du burua aurrealdekoen multzoan sartzeko. Bergara (11) aspaldiko liga hasiera txukunena egiten dabil, eta seigarren dira. Aloñak (9), ostera, etxeko partidua baliatu nahi du, hain zuzen, sailkapenaren erdialdea atzean utzi eta beste pauso bat emateko.

Nahitaz espabilatu behar dutenak Aretxabaletako (4) muti-

lak dira, azkenak dira-eta sailkapenean. Domekan etxean jokatuko dute, eta garaipena ez lortzeak dezente aldrebestu dezake taldeko giroa, azkenaurreko postuan dagoen Lagun Onaken kontra jokatuko dute-eta. Antzuolak (7), azkenik, Lesakan jokatuko du, Beti Gazteren kontra.

Mondrak ostera ere kanpoan

Joan den astean Zumarragan jasotako jipoia ahazteko asmoz bidaiatuko dute Mondrakoek Anaitasunaren zelaira.



Iaz Azkoagainen jokatutako derbian eguraldiak ez zuen lagundu. | JARANTZABAL

ERRUGBIA

Zaleak gertu izan nahi ditu ARTk zapatuan Nafarroan, Lekarozen jokatuko duten partiduan

Arrasate Errugbi Taldeak deialdia egin die taldeko zaleei, zapatuan Baztango taldearen kontra jokatuko duten partidua ikustera animatzeko (16:00, Lekaroz). Horretarako, autobusa antolatu dute, eta doan izango da (12:30ean irtengo dira Garibaitik. Egin behar den gauza bakarra da lekua hartu, 696 334 912 telefono zenbakira deituta.

MENDIKO BIZIKLETA

Basqueadventurek mendiko bizikletan ibiltzeko irteera antolatu du Landara, neskei zuzenduta

Datorren azaroaren 10erako egin dute hitzordua, eta asmoa da Landako urtegiari itzuli bat egitea. Ibilbide motzak 30 kilometro izango ditu, eta luzeak 42. Landako aparkalekuan elkartuko dira (10:00) eta irteera horretan parte hartzeko izena baino ez da eman behar, helbide honetara idatzita: info@basqueadventure.com Informazio gehiago: www.basqueadventure.com helbidean.

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizarren Lagunarteak azaroaren 16an egingo du bazkaria, Zotz jatetxean

Markelen Lagunarteak denboraldi bukaerako bazkaria egingo du, azaroaren 16an, betiko moduan Zubillagako Zotz jatetxian. Izena eman daiteke dagoeneko, azaroaren 12ra arte, 10 euroko fiantza jarrita -egunean bertan ordainduko dira beste 20 euro-. Izena Izarraitz eta Oñati tabernetan eta Zotz jatetxean eman daiteke. Bazkalaurreko poteorako zita, 12:30ean Oñati tabernan.

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketako partidua jokatuko dituzte gaur, eguna, ibarreko pilotalekuan

Antzuolan bigarren urteko alebinen partidua izango dira (19:00), eta Bergaran 19:30ean jokatuko dituzte hiru partidua, alebin, infantil eta nagusienak. Aretxabaletan 20:00etan izango da hitzordua, eta infantil mailako bi partidua jokatuko dituzte. Ordu berean (20:00) Uarkapen infantil eta alebin mailetako lau partidua egongo dira. Egubakoitzean, Oñatin partidua bakarra izango da, 11:00etan.

KROSA

Aitor Rementeria | Antxintxika taldeko kidea eta Soraluze-Bergara lasterketako antolatzailea

"Parte hartzaile kopurua mugatu dugu lasterketa erosoagoa izateko"

- Aurten, gehienez, 500 pertsonak hartuko dute parte lasterketan
- Pantaila handi bat egongo da korrikalarien helmugaratzea ikusteko

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Aitor Rementeria Antxintxika triatlói taldeko kidea da eta Soraluze-Bergara antolatzen dabiletako bat. Aurtengo krosa bederatzigarrena da, eta, urtero bezala, kirolari asko espero dituzte Soraluze eta Bergara arteko hamar kilometroko ibilbidea egiteko. Zapatuan 16:00etan hasiko da lasterketa, gurpildun aukietako kirolariek.

Zenbat parte hartzaile espero dituzue aurten?

Ba, oraingo, 250 apuntatuta daude, baina, beste urteetako esperientzia kontuan izanda, lasterketa eguneko bezperan beti apuntatzen da jendea; iaz 100 lagunek baino gehiagok eman zuten izena azken momentuan; beraz, lasterketa egunera arte ez dut jakingo zenbat garen zehazki, baina 450-500 bat izango gara, seguruenik.

Aurten mugarik jarri duzue?

Bai, 500 pertsonak, gehienez, parte hartu ahal izango dute. Kontua da bidegorriak ez duela, gure ustez, gehiagorako ematen; hau da, bidea estua da eta jende asko pilatzen bada ez da eroso korrikalarientzat. Gure helburua kirolariak mimitzea da, urte urte lasterketa honetan parte hartzeko eta krosaren kalitatea mantentzeko. Horretaz gain, parte hartzaileei txaleko bat eta bisera bat ematen diegu eta horrek ere kostu bat dauka.



Aitor Rementeria, lasterketa aurkeztu zen egunean. | GOIENA

"Kirolariak mimitzen ditugu lasterketan berriz parte har dezaten"

Aurten berrikuntzarik izango da?

Ba, bai; helmugan pantaila handi bat jarriko dugu eta bertan, kirolariak nola heltzen diren ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek zuzen-zuzenean. Gainera, iazko lasterketako iru-

diekin bideo bat egin dugu eta bertan izango da ikusgai, itxaroten dauden herritarrek entretenitze aldera. Bestalde, aurten, Federazioarekin lan handia egin eta gurpildun aukian arituko diren partaideen kopurua handitzea lortu dugu. Iaz, bi pertsonak hartu zuten parte eta aurten hamar izango dira.

Hiru lasterketa, beraz, aurten ere.

Bai; lehenengo, gurpildun aukietako eta hand bike-ko kirolariak aterako dira. 16:45ean patinakin irteno dira eta korrikalariak, aldiz, 17:00etan aterako

dira Soraluzeetik. Aurten ere, 15:00etan, Bergarako kaleetan txikienek ere protagonismoa izango dute; izan ere, jolasteko motorrekin lasterketak egingo dituzte.

Aurten ere badago autobusik?

Bai, 15:30etan eta 16:00etan izango dira autobusak, saihesbidean gelditzen dira, eta kirolariek bi euro ordaindu beharko dituzte. Halaber, txipa alokatu behar dutenek beste bi euro ordaindu beharko dituzte. Diru kontuekin segituz, aurten ere parte hartzaile bakoitzak 15 euro ordaindu behar ditu izena emateko orduan. Diru horrekin eta babesleen diruarekin lasterketa antolatu eta sariak lortzeko beste izaten dugu.

Sariak aipatu dituzula eta, zeintzuk dira aurtengoak?

Ba, urtero bezala, kirol materiala, trofeoak... eta guztiei horrenbeste gustatzen zaion zozketa ere egingo dugu. Aurten, gainera, sari potoloak ditugu; besteak beste, asteburuak baserri turismoan, sarrerak, material espezializatuak...

Errekorrei dagokienez, zenbat denbora behar da ibilbidea egiteko?

Iaz, azken hiru urteetan irabazi zuen kirolariak, David Gartzia, 32 minutuan jarri zuen errekorra, ez dakit aurten marka hori hobetzerik egongo den...

Bederatzi urteko ibilbidea... ze balorazio egiten duzue?

Positiboa; beti dago zer hobetu, baina aurrekontuak ere asko mugatzen gaitu. Hala ere, pozik gaude lanarekin. Urte asko dira, esperientzia hartzen gabiltza eta nabaritzen da. Lan asko egiten dugu lasterketa hau antolatzeko, maiatza ezkerreko lan eta lan gabiltza eta azkenengo aste hauetan topera ibiltzen gara; gainera, azkenengo momentuan beti ateratzen da zerbait...

ESKUBALOIA

Ford Mugarri Arrasatek Tolosa izango du aurkari

A.E | ARRASATE

Ford Mugarri Arrasate eskubaloitako taldeak Tolosaren aurka jokatu du domekan Iturripen. 12:00etan izango da partidua. Aurreko jardunaldian garaipena lortu ostean, Arrasateko mutilak bigarren postuan daude sailkapen nagusian, liderrarengandik bi puntura. Domekako aurkaria, aldiz, seigarren postuan dago zazpi punturekin.

Bestalde, azaroaren 9an, Ford Mugarri taldeak Stadium Casablanca talde aragoiarraren etxean jokatu du. Bada, klubak autobusa antolatu du partidua ikustera joan nahi duten zale eta jokalarientzat. Hain zuzen ere, autobusa 13:00etan irteno da Iturripenetik eta afaltzeko Castejon inguruan geldituko dira. Partidua ikustera joan nahi dutenek klubeko arduradunekin harremanetan jarri beharko dute honako telefono zenbakian: 606 065 012.

Bergara-Escolapios

Begararrek ere partidua jokatu dute asteburuan: Bilboko Escolapios taldearen aurka jokatu dute zapatuan, 12:15ean. "Azken porrotari buelta eman behar diogu partidua honekin. Gainera, jokalaririk batzuen bajak ditugu", adierazi du Muniategik. Hori dela eta, bigarren taldetik jokalaririk igo beharko ditu zapatuko partidurako.

SASKIBALOIA

Euskadiko saskibaloitxo txapelketa jokatu da asteburu honetan Zubikoa kiroldegian

Arabako, Bizkaiako eta Gipuzkoako haur mailako kirolariak lehiatuko dira

A.E | OÑATI

Haur mailako selekzioen arteko Euskadiko saskibaloitxo txapelketa jokatu da asteburu honetan Oñatin. Zubikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako haur mailako kirolariak arituko dira saskibaloian jokatzen. Gasteizko Aranalde kiroldegian, aldiz, kadete mailako Euskadiko txapelketa jokatu da.

Asteburu honetan hiru jardunaldi izango dira, egubakoitzetik domekara arte. Lehenengo jardunaldia egubakoitzean izango da, 10:00etan hasita. Neskek estreinatuko dute txapelketa; izan ere, Bizkaiako eta Gipuzkoako elkarren aurka jokatu dute. Mutilen txanda eguardian izango da, 12:00etan; neskek bezala, Bizkaiako mutilak gipuzkoarren aurka jokatu dute.

Zapatuan, aldiz, arabarrak



Saskibaloitxo partidua. | ARABAKO SASKIBALOIA FEDERAZIOA

eta bizkaitarrak lehiatuko dira. Lehenengo, neskek jokatu dute, 10:00etan, eta eguerdian, berriz, mutilak izango dira kantzaxan. Domekan, gipuzkoarrak eta ara-

barrak aurretik aurre izango dira, baina, beste egunetan ez bezala, lehenengo partidua mutilak jokatu dute; hain zuzen, Gipuzkoako mutilak arabarren aurka

10:00etan eta gipuzkoako neskek arabarren aurka 12:00etan.

Kadete mailako Gasteizen

Kadete mailako Euskadiko txapelketa ere jokatu da asteburuan. Maila horretako neska-mutilak Gasteizko Aranalde lehiatuko dira.

Egubakoitzean, Oñatin bezala, Bizkaiako eta Gipuzkoako neskek izango dira lehenak saskibaloian jokatzen. Haien ondoren, mutil gazteen txanda izango da.

Zapatuan, etxeokak eta bizkaitarrak lehiatuko dira, bai nesketan eta baita mutilen ere. Eta domekan, Oñatin bezalaxe, gipuzkoar kirolariak eta arabarrak aurretik aurre izango dira kantzaxan.

Hortaz, harrobia badagoela ikusteko aukera paregabea izango da asteburu honetan Oñatiko Zubikoa kiroldegian eta Gasteizko Aranaldean. Oñatin, gainera, saskibaloitxo taldeak lan handia egin du txapelketa hori herrira ekartzeko; beraz, herritar guztiak animatzen eta gonbidatzen ditu Zubikoa joan eta kirol horretaz disfrutatzea, kirolari gazteek merezi dute eta.




Partidu bateko une bat. | GOIENA

FUTBOLA

Aloñako futbolarien aurkezpen ofiziala egubakoitz goizean

10:00etan Aloñako futbol taldeko maila guztietako kirolariak Azkoagainen izango dira aurkezpen ofiziala egin eta argazkiak ateratzeko. Aurten hamaika talde daude: zortzi mutilenak eta hiru neskenak, hain zuzen ere. Bada, futbol zaletasun handia dagoela argi dago, baita harrobi indartsua dagoela ere.

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA

Garai bateko bizimodua eta ohiturak Angiozarren ikasgai

Heriotzaren inguruko bisita gidatuak eta erakusketak antolatu dituzte egunotarako Angiozarren

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Angiozarren oraindik ere egiten dituzten garai bateko hileta errituak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da egunotan. Helburu horrekin antolatu dituzte *Herioa Anderea* izenburupean askotariko ekitaldiak. Iaz bezala, aurten ere bisita gidatuak egingo dituzte; horrez gainera, erakusketa bikoitza eta hitzaldia ere jaso dute aurtengo egitarauan. Angiozar bailarako batzarreko kultura eta turismo lantaldeak antolatu du Bergarako Turismo Bulegoarekin batera.

Bisita gidatu bi

Aurten ere Bergarako Turismo Bulegoko Jon Arroitzak gidatuko ditu bihar, egubakoitza, eta zapatuan egingo dituzten bisita gidatuak; biak ala biak goizeko hamaiketan abiatuko dira Angiozarko San Migel elizpetik, Elizamendi ermitaraino joango dira gero, eta ibilbidea San Migel parrokiaren amaituko da. Bi ordu inguruko ibilbide aldapatsua da eta parte hartzeko ez da aldeztu aurretik izenik eman behar. Euskarazko bisita gidatua bihar, azaroak 1, egingo dute eta gaztelarazkoa, berriz, azaroaren 2an, zapatua.

Zentzu erlijiosoaz gainera, bisita gidatuko ibilbideak esanahi zabalagoa ere badaukala dio Jose Angel Mikeok, Angiozarko alkatea: inguru kulturala ezagutzera eta garai bateko bizimodua nolako zen erakustea, hain zuen ere: "Goranzko bidean, aspektu historioak azalduko ditu Arroitzak eta behean, berriz, Eliza bide baten ibilbidea egingo dugu; nolabait esanda, garai baten hildako bati egiten zitzaion laguntze prozesu hori egingo dugu. Hori horrela, geldialdiak egongo dira, jendea nola batzen zen kontatzeko eta eliza bideen garrantzia azaltzeko; azken finean, etxeak eta elizako sepulturak zuten lotura erakusteko helburuarekin", azaldu du Mikeok. "Inguru sozial eta historikoak azaltzeko, garai askotako baserriak ikusiko ditugu: dolare-baserriak, besteak beste. Angiozar bailara guztia ikusiko dugu, zazpi auzoak ermita baten inguruan batuta, eta horrek bailararen beraren izaera politikoa kontatzera ere bultzatuko gaitu".



Iaz egin zuten ibilbide gidatuetako une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

Bi erakusketa

Aipatutako bisita gidatuen osagarriak dira erakusketa biak: atal bat elizan dago ikusgai eta bestea, berriz, Saloia deitzen dioten lekuan.

Otxandioko Alberto Barrondok Peña Santiagoren liburitik ateratako irudiak oinarri hartuta egindako argizaiolen 35 erreplika dira. "Argizaiolen ibilbide zabala

ESANAK

"Ibilbideak erlijio zentzua baino zentzu zabalago du"

JOSE ANGEL MIKEO | ALKATEA

erakusten dute: zaharrenak sinpleak dira eta garaietan aurrera egin ahala, forma eta adornoetan osatuagoak dira. Benetakoen neurri bereko eta ezaugarri berekoak dira, originalen kopia zuzenak, bada", dio Mikeok. Argizaiolei laguntzen azalpen batzuk ere badaude, tarteka-tarteka: argizaloia zer den, zein esangura duten, hitzaren esanahia eta datu histo-


rikoak, besteak beste. "Azalpen horiez gainera, ikus-entzunezko bat ere martxan izango da, non argizaiolen bilakaera erakutsiko duen, besteak beste", azaldu dute Angiozartik. Otxandioko Barrondok egindako lanez gainera, badira batzuk Saloian eta beste batzuk elizan, Bergarako zurgintza taldekoek egindakoak ere bai.

Elizan dagoen erakusketan, berriz, heriotza errituarekin lotutako askotariko objektuak batu dituzte; besteak beste, hildakoaren familiak elizan jartzen zituen zapi beltz gurutze gorridunak eta belunikatuta egoteko garai bateko aulkiak.

Elizako bilduma hainbat gunetan banatu dute: Hiltze ueña; Hildakoaren etxea; Hileta-elizkizuna; eskelak eta urteurren oroigarrien gunea eta mapa bat. Honek azaldu du Mikeok atalez atal erakutsi dutena: "Hiltze ueña delakoan, abadea hildakoaren etxera azken igurtzia ematera joaten zenean eramaten zituenak batu ditugu, besteak beste. Etxeko atalean, berriz, hildakoaren etxean jartzen zuten aldarea irudikatzen dugu gurutzearekin, urbedeinkatuaren ontziarekin, santuen estanpekin eta errezorako liburuekin, besteak beste. Elizkizunaren atalean, ostera, eliza bera nola egokitzen zuten erakutsi gura izan dugu; horretarako, gordeta zegoen Angiozarko hilkutxa atara dugu. Aipatu behar da, garai baten, hildakoa ez zutela elizara eramaten, baina, hala ere, hilkutxa bat muntatzen zuten. Horrez gainera, eskelak eta urteurren oroigarriak ere badaude, eta baita mapa bat ere. Mapa horrek etxe bakoitzak zuen eliza bidea erakusten du, elizako sepultura ere etxe bakoitzari zegokion-eta; izan ere, hildakoak elizan zeuden eta etxean, berriz, bizirik zeuden familia bereko senideak".



Angiozarko bizilagun bat, elizako erakusketan hilkutxa atontzen. | UBANE MADERA



Elgetako artxiboan dagoen 1500. urteko facsimilearen kopia. | J.A. MIKEO

Calahorrako Gotzaindegari erantzuna

Jose Angel Mikeok Elgetako artxiboan aurkitu zuen Angiozarrek eta Elgetak ezarritako hilobiratze-tasak direla-eta Calahorrako Gotzaindegaren aginduari jarritako helegitearen facsimilea ere elizako erakusketan dago ikusgai.

Aipatutako 1500. urteko dokumentu hori abiapuntu hartuta egin zuen atzo, eguaztena, Joantxo Madariaga UNEDeko eta Nafarroako Unibertsitateko irakasleak hitzaldia Saloian.

'Madonna zurrunbiloa'-ren osteko aurkezpen bira

Udaberrian kaleratuko duten disko berriko hainbat abesti aurreratuko dituzte

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Perkusioa, sentimenduak, erritmoa, musika... Euskal musikaren hastapen doinuek Oñatiko Gaztelekua beteko dute. *MDNA* bira bukatu eta gero, Kalakan hirukotea Euskal Herrira bueltatuko da. Bira horrek, euskal doinuek nazioartean erakustez gain, euren izaera sortzailea ideia eta proposamen berritzailez betetze ere balio izan die.

Bada, gaur 22:30eko kontzertua ikusteko sarrerak 8 euro balio dute.

Disko berria, ildo beretik

Madonnarekin mundu mailako bira egin ostean, hirukotea berezkoak dituen kontzertu txikietara bueltatu da. Argia eta apainketa neurtu baten laguntzarekin, Kalakanen musikak protagonismo handiagoa lortzen du.

Hirukoteak ez daki geldirik egoten, eta, nolabaiteko arriskua hartuz, ustekabeari eta naturaltasunari lekua uzten dio. Abesti berrietan taldearen aztarna eta ibilbidea erraz igartzen da. Musika moldaketek Nafarroako



Madonnarekin bira egin ostean, ospe handia lortu zuten. | KALAKAN

Erriberatik Zuberoako bailaretara, Rio de Janeiro, New York, Londres, Erroma eta Amsterdamera eroango dituzte entzuleak.

90 minutuan, Thierryk, Jami-xelek eta Xanek euren ahotsen eta perkusioaren laguntza besterik ez dute izango. Hirurek XVI. mendeko kantuak gaurkotasunez jantzi dituzte; horrez gain, egungo hainbat olerki ere kantatzen dituzte. Kontzertua

sorpresaz josita egongo da, eta zaila da hirukote horren musika genero batean kokatzea. Gaztelekura joaten direnek haur kanta baten doinu leunetatik ahots eta perkusio doinu harroagotara egingo dute salto.

Kalakanek euskal musika munduratu egin du, ireki, zabaldu. Iparraldeko hirukote horren gonbidapena onartzen dutenek belarri eta begiak zabaltzeaz gain, bihotza ere ireki beharko dute.

Datorren astean salduko dituzte aurtengo zarzuelako sarrerak

I.G. | ARRASATE

Azaroko azken bi asteburuetan, hain zuzen, azaroaren 23an, 24an, 29an eta 30ean, zarzuela izango da nagusi Arrasateko Amaia antzokian. Izan ere, urteroko hitzorduari eutsiz, Izaskun Murgia elkarteak lirikoko kideak buru-belarri dabilta *La tabernera del puerto* prestatzen. Mimo bereziarekin egindako lana izango da, elkarrekin taularatu zuen lehen obra izan zen-eta.



Aurreko urteko zarzuela. | GOIENA

Duela 13 urte taularatu zuten Zarzuela horrekin elkarrekin bere hastapenak gogora ekarriko ditu. Horrez gain, istorioa asmatutako herri batean gertatzen den arren, euskal

musikak eta giroak presentzia berezia izango dute.

Sarrerak Amaia antzokiko leihatilan, Udalaren eta Kutxabanken webguneetan egongo dira salgai, 18 eurotan.

Datorren martitzenean aurkeztuko du Governors taldeak 'Morphinapolis' diskoa

I.G. | ARRASATE

Bilboko kafe antzokiak hartuko du talde arrasatearraren laugarren diskoaren aurkezpena. Martitzenekoa prentsarentzat prestatuko ekitaldia izango da, eta bertan, Higain estudioan grabatutako *Morphinapolis* diskoaren abestiak erakutsiko dituzte.

Kontzertuak azarotik aurrera

Lehen ekitaldi horren ostean, Donostian, Durangon eta Atarrabian eskainiko dituzte kontzertuak.

Diskoaren aurrerapen gisa Interneten *zuloan* kantua eskegi dute, jarraitzaile guztien gozamenerako. Aste bakarrean 3.000 entzunaldi izan ditu.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Arte kale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Bergaran hartuko du lur Kantarik domeka honetan

Goiena telebista, bestalde, datorren astean hasiko da Kantariko saio berriak emititzen, astean bitan

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Kantari saioak Bergaran hartuko du lur domeka honetan, azaroak 3. Hain zuzen ere, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako 160 neska-mutilek inguruk entseguak egingo dituzte Zabalotegin.

Entseguak konfiantza hartzeko

Bi aste besterik ez da falta Kantari ikuskizunak Bergarako Zabalotegi aretoa kantuz eta dantzaz betetzeko. Baina urrian Aretxabaletan egin bezalaxe, saioaren grabazioa egin aurretik entseguak egin beharko dituzte parte hartza animatu diren 160 neska-mutilek.

Domeka honetan elkartuko dira, goiz eta arratsalde, etxean ikasitako kantuei eta koreografieei azken ukituak emateko. "Helburu nagusia, baina, emanaldiaren egunean agertokia ongi ezagutzea da", azaldu du saioako gidari Amaia Txintxurretak.

Neska-mutilek Kantariko blogean (<http://blogak.goiena.net/kantari>) zintzilikatutako abestien letrak eta koreografiak ikasi dituzte orain arte euren kabuz. "Oso garrantzitsua da entsegu egunean dena ongi ikasita ekartzeta. Esaterako, blogean jasotzen diren kantuen melodia bakarrik entzungo dute, ez da letrarik egongo, eta buruz jakin beharko dute, ondorioz".



Kantari saioaren une bat, urrian, Aretxabaletan. | JOSETXO ARANTZABAL

Emanaldia, azaroaren 9an

Azaroan 9an, zapatua, izango da une erabakigarria, orduan irten-go baitira publiko aurrera parte hartzaileak, 15:30etik 20:15era. Zabalotegira sartzeko gonbidapenak banatuko dituzte entsegu egunean eta soberan daudenak egunean bertan jaso ahal izango direla eman dute aditzera. "Doakoa da sarrera, baina jende kopurua kontrolatzeko beharrezkoa izango da".

Sei saio ekoiztuko dituzte, eta, grabazio bakoitzetik bestera, Eskoriatzako DJ Andonik musika ipiniko du, jendea dantzan jarri eta festa giroa sortzeko.

Goiena telebistako emisioak

Bestalde, datorren astean, martitzenean, hasiko da Goiena telebista orain arte grabatutako saioak emititzen. Urrian Aretxabaletako eta Eskoriatzako neska-mutilek grabatu zituzten saioak emitituko dituzte.

Astean birritan eskainiko dira, martitzenetan 19:35ean –errepikapena eguaztenean, 13:05ean– eta eguenean 19:35ean –errepikapena egubakoitzean 13:05ean.

Eta asteburuetan ere eskainiko dira saioen errepikapenak: hain zuzen ere, zapatuetan 10:00etan eta 16:00etan eta domeketan 13:00etan eta 19:00etan.



Medianoche hirukotea. | MEDIANOCH HIRUKOTEA

Medianoche hirukoteak boleroz jantziko du Espaloia

Z.V.D.M. | ELGETA

Espaloia boleroen doinura mugituko da zapatuan, 22:30ean hasita. Medianoche hirukotea osatzen duten Bernardo Agilera, Pedro Bartra eta Jesus Maria Bastida gitarra eskuetan dutela igoko dira oholtzara, Los Panchos eta Los Tres Reyes taldeen bertsioak egiteko.

"Munduko hirukoterik onenak dira bi horiek guretzako, inork ez ditu gainditu. Dela gitarra jotzeko moduagatik, bai eta zuten ahotsengatik ere", eman du aditzera Bastidak. Hori horrela, omenaldi gisa interpretatzen dituzte haien abestiak.

Zazpi hilabeteko bidea

Eibartik datorren hirukotea duela zazpi hilabete elkartu zen aurreneko eta astean behin batzen dira entseguetarako. "Oso ondo pasatzen dugu momentu horietan eta baita eman

ditugun kontzertuetan ere". Izan ere, hainbat emanaldi eskaini dituzte orain arte Medianochekoek: "Gauza xumeak izan dira, Elgetakoa da orain arteko agertokirik serioena, ziurrenik".

Kantutegi zabala

Bertsioen gaua izanik, ez dira faltako Los Panchos talde mitiko mexikarraren abesti ezagunak. *Obsesión*, *Rayito de Luna*, *La última copa* eta *Sin tí* kantuek entzun ahal izango dira Elgetako kafe antzokian.

"Baina, gainera, Los Tres Reyes taldearen *Homenaje a los Panchos*, *Como un bolero* eta *Odiame* abestiak interpretatuko ditugu, besteak beste".

Kantu asko 1940ko hamarkadakoak direla azaldu du Bastidak: "Ziur ikus-entzuleek ezagutzen dituztela joko ditugun abestietako asko, baina ez dakitela talde horienak direla".

Maria Urzelai bergararra protagonista Zabalotegin 'Satisfaktion' lanean

Khea Ziater taldearen azken antzezlan da eta bihar izango da emanaldia, 22:00etan hasita

Z.V.D.M. | BERGARA

Khea Ziater taldeak proposamen berezi bat ekarriko du Zabalotegi aretora bihar, egubakoitzean, 22:00etan hasita. *Satisfaktion* izeneko obra ikusteko aukera egongo da. Maiatzean aurkeztu zuten Donostiako Poltsiko Antzerki bekarako sortutako lan hori, eta, saria eskuratuta, hainbat saio eskaini, eta Bergaran egingo dute geldialdia.

Bergararra, protagonista

Alex Gerediaga zuzendariaren gidaritzapean, Maria Urzelai bergararra irtengo da jendaurrera. Hura da obrako antzezle bakarra; pertsonaia berezia interpretatzen du, Kriss deitutako aktorea, eskarmentu handikoa, Gerediagak azaldu duenez.

"Kriss haurdun geratzen da, eta, ondorioz, famatu egingo



Satisfaktion lana. | KHEA ZIATER

lukeen pelikula bateko protagonista izateari uko egiten dio. *Satisfaktion* obra bere berragertzea da eta film hartan egin ahal izan ez zuen papera interpretatzen

du: Mini Loff emagalduearena, hain zuzen ere".

Antzezanak gordintasun puntu bat daukala azaldu dio Goienari Gerediagak. "Dena dela, nik uste dut genero ezberdinak biltzen ditugula obra honetan. Hau da, iruditzen zait badaukala nolabaiteko tragedia puntu bat, baina, era berean, ez da umorerik falta". Eta gainera, efektu bisualak dituela eta musika aldetik ere "nahiko kañeroa" dela gaineratu du obraren zuzendariak.

Gaztelaniazkoa martxan

Khea Ziater 2010ean sortu zen Alex Gerediagaren eskutik. "Arte eszenikoaren barruan sorkuntzak ematen dituen aukera ezberdinen hausnarketa baliatuta, garena eta sentitzen duguna gure ogibidearen bidez kontatzea dugu helburu".

Donostiako Poltsiko Antzerki Sorkuntza beka eskuratuta, emanaldiz emanaldi aritu dira. *Satisfaktion* euskaraz jaio zen –bihar Bergaran ikusiko dena–, baina orain, gaztelaniazko bertsioa ere sortu dute. "Bilbon izan da estreinaldia eta jendearen erantzuna ona izan dela esango nuke".

Correos taldearen doinuak gaur Koolturen barruan

Donostiarrak Arrasateko Gaztetxean izango dira gaur (22:00) euren azken lana aurkezten

Z.V.D.M. | ARRASATE

Donostiako Correos taldea Arrasateko Gaztetxeko oholtzaren jabe egingo da gaur gauean, Kooltur Ostegunen barruan. Hala, urriko egitarauaren azken emanaldia 22:00etan hasiko da eta *Esponjas para bañar el horizonte* azken laneko kantuak eta beste asko joko dituzte.

Taldearen bigarren lan luzea da Arrasaten aurkeztuko dutena. Warner Music diskoetxearekin atera dute. Kontzertuz kontzertu hainbat agertokitara igo dira, eta, gainera, *Los Conciertos de Radio 3* saio esanguratsuan parte hartu dute.

Esponjas para bañar el horizonte lana entzun dutenek "dotoretasunez landutako elektronikak, baxu distortsionatuak, power-popa eta errepika ugariz"

osatuta dagoela diote. *Canción de cuna*, *Animal salvaje*, *Aspirantes* eta *Calles llenas de gente vacía* kantuetan doinu dantzagarriak eta lasaixeagoak jasotzen dira.

Ibilbide emankorra

Donostiarrek hainbat urte daramatzate musika munduan murgilduta. Iraupen laburreko lanak egin dituzte, eta baita luzeak ere; azken horiek 2009an Donostiako Pop-rock lehiaketa irabazi ostean izan ziren.

Aurreneko diskoa 2010ean kaleratu zuten, *No es lo que parece* izenburupean. Estatu mailako jaialdi garrantzitsuetan aritzeko aukera eman zien lan horrek eta musika industriaren euren tokia egiten hasi ziren.

ASTEAGOIENAN



Soraluze-Bergara krosa ikusgai

Aste bukaeran Soraluze-Bergara krosa egingo dute eta asteleheneko *Harmailatik* kirol saioan tarte zabala eskainiko diogu. Parte-hartzaileen adierazpenak entzun eta lasterketako irudiak ikusiko ditugu, besteak beste.

'Harmailatik' Astelehena, 21:21



Kantari berriak martitzenetik aurrera

Astero, martitzenetan eta eguernetan emituko ditugu Kantari ikuskizunak eta hurrengo egu-nean, errepikapenak, 13:05ean. Zapatuetan 10:00etan eta 16:00etan, eta domeketan 13:00etan eta 19:00etan ere errepikatuko ditugu saioak.

'Kantari' Martitzena, 19:35

GOIENA TELEBISTA

EGUENA, 31

12:00 Magazinea
12:50 Onein
13:10 Kantari
13:40 Ekogune
14:10 Bideo klipak
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Erreportajea
15:28 Zorion Agurrak
15:33 Altxorraren bila
16:09 Berriak
16:34 Eguraldia
16:37 Onein
17:09 Planik bai?
17:29 Erreportajea
18:24 Ekogune
18:54 Zorion Agurrak
18:59 Berriak
19:19 Eguraldia
19:22 Planik bai?
19:42 Kantari
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:23 Planik bai?
21:43 Berriak
22:13 Eguraldia
22:16 Magazinea
23:01 Gurean gaur
23:31 Planik bai?

EGUBAKOITZA, 1

10:00 Planik bai?
10:20 Magazinea
11:20 Kantari
11:45 Bideo klipak
12:10 Ikusi irratia: Goierriko Kasta
12:57 Planik bai?
13:17 AsteON
13:47 Magazinea
14:47 Zorion agurrak
14:53 Planik bai?
15:17 Berriak
15:32 Gernika Lumo rallya
16:32 Ekogune
17:02 Bideo klipak
17:22 Altxorraren bila: Martxel Aizpurua
17:58 Planik bai?
18:18 Zorion agurrak
18:23 Ikusi irratia: Goierriko Kasta
19:10 Berbetan: Zesta punta
19:42 Kantari
20:12 Planik bai?
20:37 Zorion agurrak
20:42 Berriak
20:57 Planik bai?
21:17 AsteON
21:47 Ekogune
22:17 Planik bai?
22:37 Berriak
22:52 AsteON
23:22 Gernika Lumo rallya

ZAPATUA, 2

10:00 Bideo klipak
10:30 Ur eta lur
11:00 Magazinea
12:00 Planik bai?
12:20 Berriak
12:35 Nafarroa Oinez 2013
13:00 Onein
13:36 Bideo klipak
14:06 Ikusi irratia
14:53 Magazinea
15:53 Zorion Agurrak
15:58 Onein
16:30 Planik bai?
16:50 Bideo klipak
17:20 Bertso Txapelketa Nagusia
18:05 Ekogune
18:35 Zorion Agurrak
18:40 Gernika Lumo rallya
19:40 Berriak
19:55 Magazinea
20:55 Planik bai?
21:15 Erreportajea
21:42 Planik bai?
22:02 Ekogune
22:32 Magazinea
23:32 Euskal Herriko dantza txapelketa

DOMEKA, 3

10:00 Magazinea
11:00 Zorion Agurrak
11:05 Ekogune
11:35 Onein
12:11 Berriak
12:26 Planik bai?
12:46 Magazinea
13:46 Gernika Lumo rallya
14:46 Magazinea
15:46 Erreportajea
16:16 Zorion Agurrak
16:43 Ur eta lur
17:13 Euskal Herriko dantza txapelketa
17:43 Nafarroa Oinez 2013
18:08 Magazinea
19:08 Bideo klipak
19:29 Erreportajea
19:56 Bideo klipak
20:26 Magazinea
21:26 Zorion Agurrak
21:31 Euskal Herriko dantza txapelketa
22:01 AsteON
22:31 Magazinea
23:31 Berriak
23:46 Ekogune

ASTELEHENA, 4

12:00 Magazinea
12:45 Erreportajea
13:12 Ikusten
13:37 Ekogune
14:07 Onein
14:42 Zorion Agurrak
14:46 Berriak
15:16 Eguraldia
15:19 Zorion Agurrak
15:24 Nafarroa Oinez 2013
15:49 Zorion Agurrak
15:56 Onein
16:28 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 Zorion Agurrak
17:06 Ikusi irratia
17:53 Berbetan
18:28 Ekogune
18:58 Zorion Agurrak
19:03 Berriak
19:28 Eguraldia
19:31 Euskal Herriko dantza txapelketa
20:01 Zorion Agurrak
20:06 Magazinea
20:51 Berriak
21:16 Eguraldia
21:21 Harmailatik
22:06 Berriak
22:31 Eguraldia
22:34 Magazinea
23:19 Gurean gaur

MARTITZENA, 5

12:00 Magazinea
12:45 Harmailatik
13:25 Berbetan
13:57 Bideo klipak
14:15 Euskal Herriko dantza txapelketa
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:53 Onein
16:25 Berbetan
16:57 Berriak
17:17 Eguraldia
17:20 Zorion Agurrak
17:25 Euskal Herriko dantza txapelketa
17:55 Harmailatik
18:40 Ikusmira
18:57 Zorion Agurrak
19:02 Berriak
19:27 Eguraldia
19:30 Zorion Agurrak
19:35 Kantari
20:05 Magazinea
20:50 Berriak
21:15 Eguraldia
21:18 Bertso Txapelketa Nagusia
22:03 Berriak
22:28 Eguraldia
22:31 Magazinea
23:16 Gurean gaur

EGUAZTENA, 6

12:00 Magazinea
12:45 Onein
13:05 Kantari
13:35 Nafarroa Oinez 2013
14:00 Ikusi irratia
14:47 Berriak
15:12 Eguraldia
15:15 Euskal Herriko dantza txapelketa
15:45 Harmailatik
16:25 Berriak
16:50 Eguraldia
16:53 Harmailatik
17:33 Onein
18:08 Erreportajea
18:23 Nafarroa Oinez 2013
18:48 Zorion Agurrak
18:53 Berriak
19:13 Eguraldia
19:16 Bideo klipak
19:33 Baietz asmatu!
20:03 Zorion Agurrak
20:08 Magazinea
20:53 Berriak
21:18 Eguraldia
21:20 Ekogune
21:50 Magazinea
22:35 Berriak
23:20 Eguraldia
23:50 Gurean gaur

ARRASATE IRRATIA

Bihar ez da 'Igo autobusera!' irratsaioarik egongo

Bihar, egubakoitza, Domu Santu eguna denez, ez dugu zuzeneko saioarik izango. Hala, astelehenean itzuliko gara *Igo autobusera!* irratsaioarekin Arrasate Irratian, eta bertan, besteak beste, Arrasateko zarzuelari buruzko azken kontuei buruz hitz egingo dugu Naroa Elortza kidearekin.

Asteburuko gainbegiratu zapatu eta domekan

Larraitz Ugarte Azpiegitura eta Mugikortasun diputatuari egindako elkarrizketa berreskuratu dugu zapatuan eta domekan, 10:00etan. Zapatuan Amaia antzokian egingo den *Hansel eta Gretel* antzerkiari buruz ere jardungo dugu asteburuaren gainbegiratuan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Eguena, 31	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Egubakoitza, 1	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Zapatua, 2	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Domeka, 3	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Astelehena, 4	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 5	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguaztena, 6	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09

BERGARA

Eguena, 31	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 1	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Zapatua, 2	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 3	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 4	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Martitzena, 5	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 6	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05

ONATI

Eguena, 31	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 1	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Zapatua, 2	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 3	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 4	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 5	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 6	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 20°
Min. 8°



Max. 18°
Min. 6°


ZAPATUA, 2

Egunaren lehen zatian zeruan hodei asko izan arren, arratsaldean gutxiago izango dira eta tenperaturak gora egingo du.

DOMEKA, 3

Giro nahasia izango dugu domekan; izan ere, euria egin lezake eta tenperaturak, gainera, behe- ra egingo du.

EUSKAL HERRIA



Zapatuan eguraldi hobea izango dugu domekan baino; izan ere, domekan euria egingo du.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Baso langileak. Arrasateko Udala. Bost hilabeterako lau baso langile peoi eta taldeburu bat kontratatu nahi dira. Epea: urriak 31.

Komunikazio eta publizitate

arduraduna. Pirinioetako Lan Elkartek Jacan duen egoitzarako. Baldintzak: komunikazio, kazetaritza, publizitate edo harreran publikoetako lizentziatura, eta frantsesa eta gaztelania. Epea: azaroak 4.

Gizarte hezitzaileak.

Lorrazte elkarteak. Gizarte hezitzaile mutilen lan poltsa osatu nahi da, Debagoienetako, Urola Kostarako eta Goierriko. Epea: azaroak 22.

BEKAK

Unibertsitatez kanpoko ikasketak laguntzeko beka.

(Haur Hezkuntza, LH, DBH, batxilergoa, heziketa zikloak eta oinarriko arte, dantza, musika eta kirol ikasketak). Kontzeptuak: ikas materialeko, bazkariak ordaintzeko, kuota, ikasketak ordaintzeko, bidaietarako, egoitzarako. Azken eguna: azaroaren 5a (gainontzeko lekuetan: azaroaren 21a).

Citius programa. Enpresetan Unibertsitate praktikak egiteko. Fundacion Universidad Empresa (FUE) Universitat Autònoma de Barcelona (UAB), Universidad Autònoma de Madrid (UAM). Baldintzak: 30 urte baino gutxiago izatea, deialdi bakoitzari egokitzen zaion unibertsitate titulu ofizial homologatua azken lau urteetan eskuratua izatea. Beka horretarako aurkezteko azken eguna: abenduak 31.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net Oñatiako Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

URTEURRENA

Jesus Errasti Uribetxebarria



Gasteizen hil zen 2011ko azaroaren 4an.

Zu joanagatik, betirako izango zara gurekin.

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2013ko urriaren 31n.

URTEURRENA

Eusebio Agirre Alzelai



Oñatin hil zen 2012ko azaroaren 3an, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Alkartako Eusebio Duruko larreetan zeure ordien artean beti egongo zara gure bihotzean.

Elizkizunera joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Oñatin, 2013ko urriaren 31n.

OROIGARRIA

Martina Zelaia Martinez de Butron



Oñatin hil zen 2013ko urriaren 29an, 88 urte zituela.

Gure bihotz barruan eramango zaitugu beti, amama Martina.

Zure bilobak eta birlobak, Amaia, Ibon, Martin, Elene, Mikel, Aimar eta Aitor.
Oñatin, 2013ko urriaren 31n.

HILDAKOAK

- Antonio Biain Biain.** Oñatin, urriaren 22an. 84 urte.
- Jose Maria Badiola Argarate.** Arrasaten, urriaren 24an. 80 urte.
- Eugenio Urkia Elorza.** Aretxabaletan, urriaren 25ean. 77 urte.
- Milagros Uriarte Azkarreta.** Arrasaten, urriaren 25ean. 82 urte.
- Pedro Leibar Arenaza.** Oñatin, urriaren 28an. 69 urte.
- Jose Maria Ruiz de Azua Gaztainondo.** Arrasaten, urriaren 28an. 85 urte.
- Ana Maria Bea Agirrebalzategi.** Bergaran, urriaren 28an. 86 urte.
- Martina Zelaia Martinez de Butron.** Oñatin, urriaren 29an. 88 urte.

OROIORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez nartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

OROIGARRIA


Pedro Leibar Arenaza



Oñatin hil zen 2013ko urriaren 28an, 69 urte zituela.

Garairik ederrenian udazkeneko haiziak, usaak bezala hegan joan haiz bapatean, landutakoak utzita senidion bihotzian.

Larrañaga sendia.
Oñatin, 2013ko urriaren 31n.




German eta Bittori eta Hilario eta Rosa

German Sierra eta Bittori Garcia eta Hilario Garcia eta Rosa Mateo. 1953ko urriaren 31n ezkondu ziren erroixar bikote bi horiek. Azaroaren 2an bazkaria eginez ospatuko dute, Oñatin, anai-arrebekin, seme-alabekin eta bilobekin. Zorionak eta ondo pasatu, familia osoaren partetik.



Mari eta Juan

Eskoriatzako Mari Bengoa eta Juan Altuna 1952ko urriaren 25ean ezkondu ziren. Joan den zapatuan ospatu zuten 61. urteurrena seme-alabekin, bilobekin eta birlobarekin batera.



Jabi eta Esther

Oñatiko Jabi Martinez eta Esther Gonzalez azaroaren 2an ezkondu dira. "Egun zoragarria pasatu, bikote, eta Costa Ricako *Pura Vida*-rekin disfrutatu topera. Musu handi-handi bat, kuadrillako partetik".

Mari Karmen eta Imanol

Aretxabaletako Mari Karmen Lizarralde eta Imanol Etxebarria 25 urte bete dituzte ezkondu urriaren 30ean. Brasileñako lagun guztien partetik, zorionak, bikote!

Felisa eta Jose Ramon

Musakolako Felisa Etxebarria eta Jose Ramon Petreñasek urrezko ezteiak beteko dituzte urriaren 31n. Zapatuan familia-rekin batera ospatuko dute. Etxekoen partetik, "zorionak, bikote, eta musu handi bana".

Amaia eta Iker

Eskoriatzako Amaia Zugasti eta Iker Galarraga urriaren 31n ezkondu dira. "Zorionak eta elegante pasa dezazuela mendi aldean, lagun guztien partetik! Galdu barik ibili!".



OÑATI Kalakan taldea

2012an Madonnarekin zazpi hilabeteko bira egin zuen Iparraldeko taldeak. 80 kontzertu inguru egin zituzten. Thierry Biscary, Paxkal Indo eta Frederic Chambon dira taldeko kideak. 2010ean taldearen izen bereko diskoa grabatu zuten. Orditik hona, han-hemenka dihardute. Sarre-rak, zortzi euro.

Gaur, eguena, gaztelekuan, 22:30ean.



©COTEBASQUE.NET



GLU-GLU PRODUKZIOAK

ARRASATE Hansel eta Grettelen abenturak

Grimm anaien ipuin klasikoan oinarritu da Glu-Glu taldea euskarazko antzezlanaren egiteko. Kolorea eta musika dira nagusi. Ugaitz Alegria, Ylenia Baglietto eta Garbiel Ocina dira protagonista nagusiak.

Azaroak 2, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

MUSIKA**ARRASATE Correos taldea**

Donostiako hirukoteak Kooltur Ostegunetako oholza musikaz beteko du. 2009an Donostiako pop-rock lehiaketa irabazi zuten. 2010ean iraupen luzeko *No es lo que parece* diskoa grabatu zuten Iker Piedrafitaren aginduetara, eta hari esker Espainiako jaialdi entzutetsuenetan parte hartzeko aukera izan zuten.

Gaur, eguena, gaztetxean, 22:00etan.

ELGETA Medianoche taldea

Eibarko hainbat kide dituen taldeak Los Panchos eta Los Tres Reyes taldeen bertsoak egingo ditu. Sarre-rak 12 euro.

Azaroak 2, zapatua, Espaloian, 22:30ean.

BERGARA DJ jaialdia

Amaia Txintxurretak egingo du musika saioa gaztetxoendako. Doan izango da.

Azaroak 2, zapatua, Zabalotegi aretoan, 18:30ean.

BERGARA Inoren Ero Ni, The Riff Truckers eta Turbshit taldea

Laino skate parkearen laugarren urteurrenako kontzertua. Doan izango da.

Azaroak 2, zapatua, Laino skate parkean, 22:00etan.

ANTZERKIA**ESKORIATZA 'Ipuin laburra' antzezlan**

Haurrendako ikuskizuna. Txo-txongilo eta aktore arteko erdibidean, ikusleen parte-hartzea bultzatzen duen emanaldia. Tonik izozkien gurgildun postu bat dauka. Herriko plazaren bila dabil, bertan jarri eta izozkiak saltzeko. Halako batean, telefono dei harri-garri bat jasoko du eta...

Gaur, eguena, liburutegian, 18:00etan.

BERGARA 'Satisfaktion' antzezlan

Khea Ziater taldeak helduendako antzerkia egingo du. Maria Urtzelai (aktorea), Alex Gerediaga (zuzendaria), Azegiñe Urigoitia (jantziak eta eszenografia) eta Oier Ituarte (argiztapena) dira proiektuaren egileak. 2009an Donostia Kulturak antolatutako formatu txikiko antzerki onenaren saria irabazi zuen. Orditik

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

URRIA 31
AZAROA 7

hona, bide luzea egin du Khea Ziater taldeak.

Azaroak 1, egubakoitza, Zabalotegin, 23:00etan.

IKUSKIZUNAK**OÑATI 'Ituzkizuna' ikuskizuna**

Bertsoak, musika, eskujokoak, su-ikuskizuna eta beste hainbat nahastean dituen ikuskizuna da. Oñatiko eta Extremadurako artistekin egindako lana da.

Gaur, eguena, gaztetxean, 22:00etan.

ERAKUSKETAK**ANGIOZAR Hileta-errituen gaineko erakusketa**

Bergarako zurgintza taldekoen argizaiolak ikusgai egongo dira elizan. Bestalde, Alberto Barrondoren argizaiolak ipini dituzte Saloian.

Bihar, zapatua eta domeka, Angiozarko elizan, egun osoan zehar.

ARRASATE Julio Galartaren lanak

18 margolan ipini dituzte ikusgai, eta horietako batzuk salgai, gai-

nera. Helburu nagusia Galartaren obra ezagutzera ematea da eta, bide batez, Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkartearendako dirua lortzea.

Azaroaren 17ra arte, Arregi arte aretoan, denda zabalik dagoen orduetan.

OÑATI Cazenaveren eta Marotoren argazkiak

Marotoren eta Cazenaveren argazkien arteko elkarrizketak ikusgai daude Arantzazun. Oñatiko Ilunpetan taldeak antolatutako Argazki Festibaleko azken erakusketa izango da.

Azaroaren 3ra arte, Arantzazuko topagunean, 11:00etatik 18:00etara, aste bukaeran.

UMEAK**ELGETA Arimen Gaua egingo dute**

Lehenengoz Arimen Gaua ospatuko dute Elgetan, lehengo ohi-turak berreskuratzeko asmoz. 17:00etatik 19:00etara umeendako jolasak eta eskulanak egingo dituzte eskolako ganbaran; 19:00etan antzerkia; eta 19:30ean hilerria bisita egingo dute. Bisitan parte hartuko duten umei eta

helduei mozarrotuta joateko gonbidapena egin diete antolatzaileek.

Gaur, eguena, Elgetan, 17:00etan hasita.

LITERATURA**OÑATI Urriko ostegun kontalariak**

Hileko azken egunen antzerki egingo dituzte saioak. 6-10 urte arteko umeendako emanaldiarekin hasiko dute ikasturtea. Amaia Nekane izango da kontalaria. Ipuin kontaketan parte hartu ahal izateko, aurretik gonbidapena jaso behar da liburutegian.

Gaur, eguena, haur liburutegian, 18:00etan.

BISITA GIDATUAK**ANGIOZAR 'Elizbidea eta komunitatea' bisitak**

Hileta-errituen gaineko bisita gidatuak egingo dituzte, bigarrenengoz. Angiozarko kultura eta turismo taldeak antolatutako ekintza da.

Azaroak 1 eta 2, egubakoitza eta zapatua, elizatik irtenda, 11:00etan.

BERGARA San Pedro parrokia ikusteko bisita

San Pedro parrokia eraberritu egin dute, eta han egindako lanak eta parrokia nola gelditu den erakusteko bisita gidatua egingo dute. Aldez aurretik izena eman behar da, turismoa@bergara.net helbidean edo 943 77 91 83 telefonoan.

Azaroak 3, domeka, elizatik irtenda, 11:00etan.

LEHIAKETAK**OÑATI XIX. xake txapelketa**

Suitzar erara eta sei itzulitara jokatu dute txapelketa. Jokalari bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaitsi arte. 1.035 euro banatuko dituzte saritan.

Azaroak 2, zapatua, gaztelekuan, 09:00etan.

OSPAKIZUNAK**ELGETA Domu Santu eguneko elizkizuna**

Elgetako parrokan esango dute hildakoen aldeko meza.

Azaroak 1, egubakoitza, parrokan, 12:00etan.

ELGETA Hildakoen eguneko elizkizuna

San Roke ermitan elkartuko dira.

Azaroak 2, zapatua, San Roke ermitan, 12:00etan.

BERGARA Skate parkearen laugarren urteurrena**BERGARA Kirol argazkiak**

XII. kirol argazki lehiaketan parte hartu zuten erretratuak ikusgai daude Bergarako Aroztegi aretoan. Guztira, 133 argazki aurkeztu zituzten lehiaketara. Horietako batzuk saridunak tartean herritarren bistara ipini dituzte. Koloretan eta zuri-beltzean egindako lanak dira.

Azaroaren 3ra arte, Aroztegin, goiz eta arratsaldean.

JAVIER PEDRO FERNANDEZ FERRARAS



goiena

2013-10-31

BUKATZEKO

Elkartasun osoz eskainitako loreak

- ▶ Arrasateko bost hurrek loreak saldu zituzten Maritxu Kajoi egunean, batutakoa Caritasi emateko
- ▶ Jasotako dena eman nahi izan zioten elkarteari, bazekitelako jendea laguntzen duen zerbitzua dela

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Esan ohi da unerik zailenetan ere beti geratzen dela itxaropenarako zirrikituen bat, txikia izan arren. Argazkian agertzen diren bost neskatila horiek izan daitezke gero eta indibidualistagoa den gizarte honetako elkartasun eredueta bat.

Urte batzuk barru, 2013ko Maritxu Kajoi egunerako papezko loreak egin, kalean saldu eta batutako dirua Caritasi eman izana lagun artean garrantzi handirik eman gabe kontatzeko pasadizoa izango da. Egungo egoeran, baina, ingurukoaren arreta erakartzen duen ekintza da, besteak beste, protagonistek zortzi urte besterik ez dutelako.

Irene Goiarrola, Ainara Etxeberria, Uxue Zubillaga, Kiara Dorronsoro eta Itsaso Plaza dira elkartasun keinu hori gauzatu zutenak. Goiarrolaren ama da Oihana Ezkurra eta hark azaldu du dirua ematea haurrengandik ateratako zerbait izan zela: "Maritxu Kajoi egunez jantzi eta loreak kalean saldu nahi zituztela esan ziguten. Hasieran, zalantza egin genuen, txikiak zirelako, baina, azkenean, utzi egin genien. Hala ere, guraso batzuk apur bat kontrolatzen ibili ginen".



Umeak eta Caritasko Pilar Artzamendi, umeek dirua elkarteari eman zioten unean. | OIHANA EZKURRA

Loreekin 136 euro bildu zituzten eta gurasoek zati bat merienda bat egiteko gordetzea proposatu zieten; erantzuna garbia: dena Caritasi ematea.

"Umeek bazekiten zer den Caritas. Bazekiten beharra duen jendea joaten dela eta astebetean

jendeari jaten eman diezaioketela", dio Ezkurrak. Caritasko arduradun Pilar Artzamendik pozik hartu zituen umeak.

Aipamena mezetan

Umeen ekintza horrek hainbat arlotako eragileen arreta eraka-

rri du eta dirua eman eta hurrengo domekako mezetan Arrasateko apaizak elkartasunezko ekintza horren aipamena egin zuela jakinarazi diote Ezkurrari. Bada, ez da horrelako zerbait egin duen talde bakarra eta hura ere izan zuen gogoan apaizak.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Anphora hautsia

Hautsi da anphora eta Fagor denon ahotan dabil. Orain denok dakigu zerk egin duen kale eta nor den errudun. Areago, orain denok genekien hau gertatuko zela eta abisatu genuen bere garaian.

Arinkeriak edo topikoak edo demagogia ez dira lagun-garri izango zulotik irteteko. Eta analisi sinplistik ez dute argirik emango aurrera begira egin beharrekoaren gainean. Gauza askok egin du kale Fagorren denbora luzez, faktore askok eragin du anphora haustea. Eta sakoneko kezka da nola enpresaren egitura demokratikoa, korporazioaren autoritatea edota beste kooperatibaren elkartasuna ez diren nahikoa izan deskalabrua ekiditeko.

Hautsi da anphora eta aukera baliatu behar da erdua biziberritzeko eta aldaketa sakonak egiteko. Berritu beharko da barne demokraziak pertsoneri eskatzen dien konpromisoa, onartu eta eskatu beharko zaio korporazioari lidergo irudikor sendoa, eta konpondu beharko dira kasu honek kooperatiben arteko elkartasunean eragin dituen pitzadurak. Noski, kolokan dauden lanpostuei irteera duina emateaz gain.

Arazoari ematen zaion erantzunaren nolakoak erakutsiko du Debagoiena ekosistemak duen bizi-indarraren neurria.

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net